

LAN OSASUNEKO EKINTZA PLANA

Nafarroa
2017-2020

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra



2017-2020
Nafarroa



**LAN OSASUNeko
EKINTZA PLANA**

Nafarroako Osasun
Publikoaren eta Lan
Osasunaren Institutua



Instituto de Salud
Pública y Laboral
de Navarra

Izenburua: Lan Osasuneko Ekintza Plana. Nafarroa 2017-2020
Argitaratzailea: Nafarroako Gobernua. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua
Azalaren diseinua: Punto y aparte
Imprimaketa: Rodona Industria Gráfica, S.L.
Lege gordailua: NA-675/2017

Lan Osasuneko Ekintza Plana

Nafarroa 2017-2020

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	5
ATARIKOA.....	7
EKINTZA PLANA PRESTATZEKO METODOLOGIA.....	9
PLANAREN BALIABIDEAK, ANTOLAKETA ETA EBALUAZIOA.....	10
EKINTZA PLANAREN PROGRAMAK.....	11
1. LAN ISTRIPUAK GUTXITZEKO PROGRAMA	13
INDUSTRIAN ISTRIPU-TASA KONTROLATZEKO AZPIPROGRAMA	15
ERAIKUNTZA SEKTOREKO SEGURTASUNAREN AZPIPROGRAMA	19
BASOGINTZA SEKTOREKO LAN ISTRIPUAK MURRIZTEKO AZPIPROGRAMA	24
BIDE SEGURTASUNAREN AZPIPROGRAMA.....	27
GARRAIO JARDUERAREN AZPIPROGRAMA	30
ENPRESA JARDUERAK KOORDINATZEKO AZPIPROGRAMA.....	33
2. GIHAR-HEZURRETAKO ARAZOEI AITZINTZEKO PROGRAMA	35
3. ARRISKU HIGIENIKOEN KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA	39
4. ARRISKU ETA KALTE PSIKOSOZIALAK DETEKTATZEKO PROGRAMA	43
5. TALDE KALTEBERETAN ARRISKUEKIKO ESPOSIZIOA GUTXITZEKO PROGRAMA	47
LANGILE BEREZIKI SENTIBEREN AZPIPROGRAMA	47
AMATASUN-EGOERAN LAN ARRISKUEI AITZINTZEKO AZPIPROGRAMA.....	50
LANAREN ETA ADINEKOEN AZPIPROGRAMA	54
LANGILE AUTONOMOENDAKO AZPIPROGRAMA.....	57
6. OSASUNAREN ZAINTZARAKO PROGRAMA	61
7. PREBENTZIO SISTEMA HOBETZEKO PROGRAMA	65
PREBENTZIO MODALITATEAK HOBETZEKO AZPIPROGRAMA	65
ARRISKUEN KUDEAKETA HOBETZEKO AZPIPROGRAMA	69
8. PRESTAKUNTZA, INFORMAZIO ETA IKERKETA PROGRAMA	73
9. ERAKUNDEEN ELKARLANERAKO ETA KOORDINAZIORAKO PROGRAMA	77



ATARIKOA

Nafarroako Lan Osasuneko III. Plana 2015eko maiatzean onetsi zen 2015 -2020 urteetarako; 6 jarduketa ildo, 18 helburu eta garatu beharreko 136 neurri ditu. Hura abiarazteko, beharrezkotzat jotzen da 2017-2020 urteetarako Ekintza Plana egitea, bertan delako III. Plan horren lehentasunezko neurriak txertatzeko.

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Espainiako 2015-2020ko Estrategian definitzen denez, ekintza planetan zehazten dira neurri bakoitza garatzeko ardura duten entitateak, betetzeko epea eta plan horiek zenbateraino gauzatu diren eta, hala behar badu, zenbaterainoko eragina izan duten neurtzeko adierazleak¹.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME)² ekintza ildo estrategikoak, helburu berariazkoak eta adierazleak sartzen ditu langileen osasunaren gaineko 2015eko Ekintza Planean, langileen bizia babesteko eta haien osasuna eta ongizatea bultzatzeko xedez. Ekintzak zenbait sektore ekonomikotan ardatzen ditu, hain zuzen ere arriskutsuenetan esposizio profesionalen aldetik. Orobat adierazten da nor diren ekintzak betearazteko arduradunak.

Ekintza plan hau eztabaida eta ekarpen askotarikoen emaitza da, eta prozesu hori ez da dokumentu honetan bukatzen. Aldiz, abiapuntu bat da, zeinaren protagonistak izanen baitira, hein handi batean, prestaketan parte hartu duten Administrazio profesionalak, baita, bereziki, eragile sindikalak eta enpresaburuak ere, beraiek baitituzte prebentzioan hemen jasotzen diren neurriak enprestan aplikatzeko baliabideak eta erabakimena. Orobat, prebentzioaren modalitate guztiek eta prebentzioko ordezkariak zeregin berezia bereganatu beharko dute.

Ekintza Plan honen ebaluazioa saihestezina da, Administrazio Publiko eraginkor bati horixe eskatzen baitzaio ikuspegi politikotik nahiz sozialetik, eta prestatu diren adierazleen jarraipenaren bitartez eginen da.

Plan honen onespeneraren bilkuran, Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluak ohartarazi zion Nafarroako Gobernuari planak eredugarria izan behar lukeela enplegatzaile gisa prebentzioaren arloan dituen betebeharrei dagokienez ere.

1 2015-2016 Ekintza Plana Laneko Segurtasun eta Osasunerako Espainiako 2015-2020ko Estrategia. Laneko Segurtasun eta Higienarako Institutu Nazionala (LSHIN). www.insht.es

2 Osasunaren Erakunde Panamerikarra LANGILEEN OSASUNAREN GAINEKO EKINTZA PLANA OMEren Ameriketarako batzorde erregionalaren 67. saioa, 54. Zuzendaritza Kontseilua



EKINTZA PLANA PRESTATZEKO METODOLOGIA

Ekintza plan hau prestatzeko, parte-hartze prozesu bat abiatu da prozesuaren zeharkakotasuna, gardentasuna, inklusibitatea eta, beraz, emaitzen kalitatea lortzeko.

Lehentasunen zehaztapena

Lan Osasuneko Planetik abiatuta, 2016-2018ko Ekintza Planean sartu beharreko neurriak lehenetsi nahirik, erabaki zen Hanlon³ metodo egokitu aplikatzea. Neurriak Osasun Departamentuaren Ekintza Planaren eta haren Osasun Planaren arabera haztatu ziren, baita profesionalek neurri hauei ematen dieten garrantzia, haien eraginkortasuna eta egingarritasuna ere. Ekainaren 22an, Lan Osasunaren Kontseiluak ikus-onetsia eman zien aurkeztutako lehentasunei, eta baliozkotzat jo zuen behin betiko plana prestatzeko oinarritako.

Programazioa

Lehenespen horri, xede-talde lehenetsien azterketa gehitu zitzaion, arriskuen esposizio maila handiena duten taldeak eta langile kopuru handiena biltzen dutenak zein diren zehazteko.

Horrekin guztiarekin, ekintza plan hau osatzen duten 9 programak definitu dira. Azpiprogramak ere badira haietariko batzuetan. 1.etik 5.era bitarteko programak populazio talde berariazkoendako dira. 6., 7., 8. eta 9. programak, berriz, zeharkako programak dira, hau da, beste horien garapenean nola edo hala sartzan diren sostengu programak.

1. Lan istripuak gutxitzeko programa

- **Industrian istripu-tasa kontrolatzeko azpiprograma**
- **Eraikuntza sektoreko segurtasunaren azpiprograma**
- **Basogintzako lan istripuak murrizteko azpiprograma**
- **Bide Segurtasunaren azpiprograma**
- **Garraio jardueraren azpiprograma**
- **Enpresa jarduerak koordinatzeko azpiprograma**

2. Gihar-hezurretako arazoei aitzintzeko programa

3. Arrisku higienikoen kudeaketa hobetzeko programa

4. Arrisku eta kalte psikosozialak detektatzeko programa

5. Talde kalteberetan arriskuekiko esposizioa gutxitzeko programa

- **Lanpostu bereziki arriskutsuetan dauden langileen azpiprograma**
- **Amatasun-egoeran laneko arriskuei aitzintzeko azpiprograma**
- **Lanean ari diren adinekoendako azpiprograma**
- **Langile autonomoendako azpiprograma**

6. Osasunaren zaintzarako programa

7. Prebentzio sistema hobetzeko programa

- **Prebentzio modalitateak hobetzeko azpiprograma**
- **Arriskuen kudeaketa hobetzeko azpiprograma**

8. Prestakuntza, informazio eta ikerketa programa

9. Erakundeen elkarlanerako eta koordinaziorako programa

3 Pinault R, Daveluy C. La Planificación Sanitaria. Conceptos, métodos, estrategias. Masson argitalatxea. Bartzelona 1987.



2016ko uztailetik urrira, Lan Osasunaren Zerbitzuko talde tekniko batzuk lanean aritu dira programak garatzeko. Bakoitzaren edukia:

- Sarrera/ Egoeraren azterketa
- Xede-populazio lehenetsiak
- Helburuak
- Ekintzak, eta haien kronograma eta arduradunak
- Ebaluatzeko adierazleak

PLANAREN BALIABIDEAK, ANTOLAKETA ETA EBALUAZIOA

Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasunaren Zerbitzuaren eskutan egonen dira ekintza planean zehazten diren jarduera gehienak. Hala ere, gaur egun erakunde tekniko aholku-emailea denez, horrek ez dio aukerarik ematen lan osasunarekin ikusteko duten faktore batzuen gainean ebazpenak emateko; horien artean daude gai honi buruz Nafarroatik kanpo heldu diren legeak, egungo sistema ekonomikoaren bilakaerari loturiko lan baldintzak, enpleguaren prekarizazioa eta enpresetako prebentzio sistemaren eredia, aise hobe daitekeena.

Osasun publikoaren beste arlo batzuetan bezala, faktore eragileek lotura dute kausa sail handi batekin, eta funtsezkoak gertatzen dira determinatzaile sozialak eta desberdinkeria sozioekonomikoak. Lan osasunean erabakigarriak dira politika ekonomikoak eta lan eta prebentzio arlokoak. Nolanahi ere, sindikatuak eta enpresari elkarteak zeregin gailena dute langileen osasunak hartzen dituen kalteak apaltzeko tenorean. Egungo Gobernuaren konpromisoa da legean behar diren aldaketak egitea enpleguaren eta lan baldintzen kalitatea hobetzeko, horretarako behar diren lege eskumenak erreklamatzeko urratsak barne.

Plan hau garatzeko, indarrean dagoen bitartean zer giza baliabide, zer baliabide material eta zer baliabide ekonomiko beharko diren gehiago zehaztu behar bada ere, Nafarroako Gobernuak Parlamentuari helarazi dion aurrekontuan nabarmen indartu da lan osasunerako diru saila.

Bistan dena, aurreikusten diren egutegi edo kronogramak aldaketak izaten ahal dituzte, lan karga egokitu behar bada.

Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Jarraipena egiteko, Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluak zehaztuko ditu egokitzen hartzen diren batzorde eta lantaldeak.

Urteko jarraipena eginen zaie programa bakoitzean ezarritako adierazleei. Orobat, horrek aukera emanen du erabakiak hartzeko, plana bera hobetu beharrez.

Datu iturririk ez dugu proposatutako adierazle batzuen gainean. Horrek behartzen gaitu ikerlanak egitera, datuak izanen baditugu. Orobat, une hauetan datuak falta ditugu emaitza-adierazleen xede eta balioak halako fidagarritasun batez finkatzeko bidea emanen digutenak. Horretarako, azterlan berriazkoei ekiteaz gain, prest egon behar dugu prozesuaren joan-etorrian adierazleak aldatzeko eta hobetzeko.

Ikerketa, argitalpenak

Lan Osasunaren Zerbitzuko zuzendaritzaren nahia da ikerlanak bultzatzea, gai frankoren gainean ez baitugu ekintza eraginkorrerako ezagutza aski, baita artikuluen argitalpena bultzatzea ere, arlo profesional edo zientifikoan, agerkari espezializatuetan, 2017-2020ko Ekintza Planaren garapenean oinarriturik.



Genero berdintasuna sartzea

Genero berdintasuna gobernu baten politiketan sartzea funtsezkoa da, leku bateko gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunak ezabatzeko. Nafarroako Gobernuaren konpromiso irmoarekin eta Nafarroako Osasun Kontseiluak proposaturik, orientazioa eskatu zaio Osasun Departamentuko Berdintasunerako Unitateari, eta Ekintza Planeko aldaketa hauek adostu dira harekin:

1. Arau erreferentzia gisa Estatuko eta Nafarroako berdintasunerako legeak sartzea; hau da, 3/2007 Lege Organikoa eta 33/2002 Foru Legea.
2. Posible denean, datuak sexuaren arabera bereiztea, eta hori kontuan izatea emaitzak aurkeztean eta planeko adierazleak prestatzean.
3. Behin betiko planaren hizkuntzaren azterketa.
4. Programa edo azpiprograma prestatzen duen talde bakoitzarekin adostea neurri zehatz bat hartzeko aukera, neurri horrek lagun dezan jada atzeman diren desberdintasunak ezabatzen, kasurik hoberenean, edo, kasua bada, desberdintasun horiek atzematen.

EKINTZA PLANAREN PROGRAMAK

Ondotik jasotzen dira 2017-2020ko Ekintza Planaren programak eta azpiprogramak. Bakoitzean aurkezten den sarreran programaren premia arrazoitzen da eta gaiaren egoera azaltzen, beren helburuak, adierazleak eta hiru urteetan izanen dituzten xedeak ezartzen eta lantaldeen osaera proposatzen.

Programa eta azpiprograma bakoitzaren ekintza proposamen ugarietarako bateratasuna emateko, sei ataletan sailkatu dira:

- Lan baldintzak. Atal honetan sartzten dira aholkularitza eta kontrolerako ikustaldien xedeak eta ekintzak, baita laguntzen finantzaketa ere lanpostuen hobekuntzan esku hartzeko.
- Arriskuen kudeaketa. Honetan sartzten diren alderdiak loturik daude kudeaketa horren fase guztietan partaidetza bultzatzeari, gizarte eragileak prestatzeari eta istripuen zergatiak jakiteari.
- Prebentzio sistema. Honen barnean sartzten dira jardunaldiak eta mintegiak, eta lan osasunean ardura duten entitate eta erakundeen arteko koordinazioari dagozkion alderdiak.
- Informazio sistemak. Kontuan hartu ditugun jarduketan xedea da jendaurrean jartzea arriskuei, enpresei, prebentzio modalitateei eta abarrei buruzko erregistro, datu eta jakingarriak.
- Sentsibilizazioa. Sentsibilizazio kanpainak sartu ditugu.
- Ikerketa. Ezagutzan ditugun hutsuneak betetzeko ekintzak jasotzen dira.

Dokumentu hau dinamikoa da. Badakigu etorkizunean aldaketak eta hobekuntzak hartuko dituela Lan Osasunaren Kontseilutik jarraipenerako sortuko diren lantaldeetan.



1. LAN ISTRIPUAK GUTXITZEKO PROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Lan istripuen indizeek, hamarkada batean beheiti egin ondoan, 2012az geroztik goiti egin dute berriz. Zenbait egileren iritziz, kontu horretan bildu dira, batetik, 5 urteko krisiaren ondotik urte horretan abiatutako ziklo ekonomiko hedakor berri baten hasiera, lanaren antolaketan aldaketa kaltegarriak ekartzen dituen (beharkizun handiagoak, kontrol txikiagoa), eta bestetik lege aldaketak, enpleguaren alde egiteko aitzakian plantillen ahulezia handitzen dutenak. Aldaketa horien artean nabarmendu beharra dago enpresariak berak prebentzioa bere gain hartzeko aukera zabaldu izana, prebentzio modalitate gisa eta baldintza batzuk betez gero, 25 langile bitarteko enpresetara, balitekeelako ondorio kaltegarria ekarri izana istripuen prebentzioari. Ezbehar-tasetan Europako beste herri batzuekin dauden aldeek, garapen ekonomiko eta kulturalari dagokionez hemen beste eredu bat dagoela erakusteaz gain, agerian uzten dute bai Estatu Espainiarrean Administrazioek lan osasunean eramaten dituzten politikak ez direla noski aski bai hemengo prebentzio ereduak berak mugak dituela.

Programa honen arabera lehenetsuneko arreta hartu behar duten populazioak lehenetsuko momentuan, LSHINaren egungo irizpideari jarraikiz, gure jarduketak sail ekonomiko batzuetan finkatuko ditugu (Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala-2009); horietan bai intzidentzia indizeak (lan istripu bajadunen kopurua zati langile kopurua x 1.000) bai arriskuaren eraginpean dauden pertsonen kopuruak gaituzten dute Nafarroako 2015eko 75 pertzentilaren balioa. Azken batez, kontua da esku-hartzeak bideratzea arrisku handiagoko jarduera ekonomikoetara, horietan jarduketak eraginkorragoak izaten ahal baitira istripu kopurua apaltzeko tenorean.

Xede-populazioa

Arestian adierazitako irizpideak aplikatuta, honako taula honetako sail ekonomikoak bereizi ditugu:

Xedeko lan populazioak, Istripuak gutxitzeko programan

JESN	Jarduera ekonomikoa	Lang. kop.	I. I.
25	Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoak salbu	5.654	80,5
24	Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko produktuen fabrikazioa	3.790	72,3
43	Eraikuntza espezializatuko jarduerak	5.654	58,4
22	Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa	3.580	56,7
87	Laguntza egoitza-establezimenduetan	4.160	54,1
10	Elikagaien industria	11.432	52,2
45	Ibilgailu motordunen eta motozikleten salmenta eta konponketa	3.313	47,4
28	Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	4.551	43,1
29	Ibilgailu motordunen eta atoiaren fabrikazioa	11.793	42,6
49	Lurreko eta hodi-sare bidezko garraioa	5.089	41,3

I.I.: Lanorduetako lan istripu bajadunen intzidentzia indizea x 1.000

Ikusten denez, lehenetsitako sail ekonomiko ia-ia guztiak industriakoak dira salbu eta Laguntza egoitza-establezimenduetan; hura programa honetatik kanpora utzi dugu, gure iritziz kalteak



gehienbat gehiegizko esfortzuaren ondoriozkoak baitira; hartara, gihar-hezurretako arazoei aitzintzeko programan sartuko da, Ekintza Plan honen beraren barnean.

Helburu orokorrak

5. Lehenetsitako jarduera ekonomikoetan ezbehar-tasaren gorakada geldiarazten laguntzea.
6. Istripu larri eta hilgarrien indizea gutxitzea istripu mota horien eragin handiena duten jarduera ekonomikoetan.
7. Lan istripuen ustezko azpiaitorpena norainokoa den eta zergatik gertatzen den jakitea
8. Ezbehar-tasan azpikontratazioak ustez duen eraginaren gaineko informazioa edukitzea
9. Enpleguaren egonkortasuna eta lan baldintzen hobekuntza ekarriko duten politika propioak eta negoziazio kolektiboko akordioak bultzatzea

Azpiprogramak

Istripuak gutxitzeko programa hau sei azpiprogramak osatzen dute:

- Industrian istripu-tasa kontrolatzeko azpiprograma
- Eraikuntza sektoreko segurtasunaren azpiprograma
- Basogintzako lan istripuen azpiprograma
- Bide Segurtasunaren azpiprograma
- Garraio jardueraren azpiprograma
- Enpresa jarduerak koordinatzeko azpiprograma



INDUSTRIAN ISTRIPU-TASA KONTROLATZEKO AZPIPROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Nafarroan, Industria sektorean gertatu da istripu bjadunen intzidentzia indizearen gorakadarik handiena, 2014-2015 hirurtekoan: %5,4. Istripuak gutxitzeko programaren sarreran irakurtzen denez, industriakoak dira JESNaren barrenean intzidentzia indizean eta arriskuaren eraginpean dagoen populazioan P₇₅ gainditzen duten 10 sailetik 7: Elikagaien industria, Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa, Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko produktuen fabrikazioa, Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoak salbu, Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa, Ibilgailu motordunen eta atoiaren fabrikazioa eta, azkenik, Ibilgailu motordunen eta motozikleten salmenta eta konponketa.

Ikerketa egin da azken urteetan (2008-2015) Nafarroan gertatu diren istripuen zergatiei buruz, izanik horiek larriak, hilgarriak eta arin baina interes berezikoak (lantaldean inplikazioa, altuerako erorikoak...); ikerketa horrek agerian jarri du lanaren antolaketari dagozkion arazoak eragile nagusi direla istripu horien heren batean baino gehiagotan; inguruneke prebentzioaren kudeaketan egindako akatsak, berriz, gertakarien bosten batean, nonbait hor; laneko ekipamendua, %13 - 23tan, eta lantokien baldintzak, istripuen %7,5 - 12.0tan.

Argitu beharra dago lanaren antolaketaren barnean alderdi aunitz sarturik daudela, lan metodoekin, zeregina gauzatzearekin, prestakuntzarekin, jarraibideekin eta abarrekin ikusteko dutenak. Prebentzioaren kudeaketak, berriz, arriskuen kudeaketaren elementu batzuk bereganatzen ditu, arriskuen identifikaziotik haste, ezarritako aurreneurrien ebaluazioraino. Faktore multzo hori ugaria denez, istripu gehiagotan agertzen dira laneko ekipamendua edo erreminta baino, adibidez.

Laneko ekipamenduei eta lantokiei buruzko araudi europarra Estatu Espainiarrera ekarri zenetik iragan diren urteengatik ere, segitzen dugu ikusten nola haren egokitzapen ezak eragin handia izaten segitzen duen istripu larrienen atzean (INVAC datu basea. Propioa).

Nafarroako ezbehar-tasari buruzko 2015eko txostenaren arabera⁴, Lan Istripuaren Agiria azterturik, ikusten da nola erremintak erabiltzen ari ziren istripuen %14,7 gertatu zirenean, eta makinak %5,7tan. Istripuan gertatzen den desbideratzeari dagokionez, haien %20,4tan gertatu da makinaren edo garraioaren kontrolaren galera.

Urte hartako istripuetan nahasiriko eragile materialei dagokienez, haien %16 loturik daude maila bereko eraikin eta azalerei (lantokiak), %5,5 azalera garaiei, %12,1 erreminta eskuzko nahiz mekanikoei, %7,5 makinei eta %13,6, garraiorako gailuei.

Langileek laneko istripuen zergatiez duten irudipenari dagokionez, industria sektorean, erantzun bat baino gehiagorako aukera ematen zuen galdera bati⁵erantzun zitzaion %45,3tan distrazioak direla, %26tan presaka lan egitea, %20tan jarrera behartuak, %16,5etan pisuen manipulazioa, %12tan nekea, %9,5etan espazio, garbitasun edo ordena eskasiak edo arazoak, %6,6tan mantentze desegokia edo eskasa, %6,3tan makinaren edo tresneriaren eskasia, %5,9tan babesik gabeko irekidura edo zuloak, egoera txarreko eskailera edo plataformak eta abar.

%8tik %14 bitartekoan iritziz, lan egiteko leku gutxi dute edo gorputzetik urrun dauden gauzei heldu behar izaten diete, edo argiztapen desegokia dute. Langileen %31 itoa sentitzen da edo lan handia egin behar duela esan du.

Inkestaren arabera, industria da, ehunekoetan, segurtasuneko arriskuei buruz azterlan gehien dituen sektorea elkarrizketaren aurreko urtean, eta orobat prebentziorako baliabide gehien, hala nola prebentzioko ordezkariak.

4 Laneko ezbehar-tasari buruzko txostena. Nafarroa 2015 Laneko Medikuntzaren eta Lan Epidemiologiaren Atala. Lan Osasunaren Zerbitzua. www.ISPOLN.es/saludlaboral/investigacionyestudios

5 Nafarroako Lan Baldintzen eta Osasunaren gaineko III. Inkesta. Laneko Medikuntzaren eta Lan Epidemiologiaren Atala. Lan Osasunaren Zerbitzua NOPLOI 2016.



Xede- populazioa

Enpresa txiki eta ertainak, programa honen sarreran aipatu diren LJESNeko jarduera adarretakoak.

Helburu orokorrak

1. Istripu indizeen gorakada geldiaraztea industria sektoreko jardueren sail lehenetsietan.
2. Prebentziorako zerbitzu mankomunatuena eraketa bultzatzea, programako herri lehenetsietako enpresetan.

Helburu berariazkoak eta helmugak

	2017	2018	2019	2020
Lan baldintzak				
Prebentzioko esku-hartzeak gehitzea lehentasunez jarduteko enpresetan.	n	n x 1,5	n x 2	n x 2,5
EPELZNren diru-laguntza eskaeren gaineko txostena egitea eta NOPLOIren diru-laguntzen deialdia kudeatzea	%100	%100	%100	%100
Halako lanpostu batzuetan istripuak saihestea, ekipamenduak egokitzeko eta lantokiak hobetzeko EPELZNren finantzaketa hartu duten enpresetan.				
Arriskuen kudeaketa				
Jarduera adar lehenetsietan, prebentzioko profesionalen eta prebentzioko ordezkarien prestakuntza eta kopurua hobetzea, Lan Osasunaren Zerbitzuak segurtasunari buruz antolatzen dituen mintegi, jardunaldi eta ikastaroetan parte hartuz.				
Prebentzio sistema				
Prebentziorako Zerbitzu Mankomunatuena eraketa bultzatzea, JESNaren arabera	n_0 PZM	$n_0 + 1$	$n_0 + 2$	$n_0 + 3$
Informazio sistemak				
Istripuen azpiaitorpena zuzentzeko neurriak indartzea				
Zenbat enpresatan dugun istripuen gaineko ikerketen emaitzen berri, haien ehunekoa handitzea				
Ikerketa				
Lan istripuen ustezko azpiaitorpena norainokoa den eta zergatik gertatzen den jakitea	70 kasu	100 kasu	125 kasu	150 kasu
Azpikontratazioak istripu-tasan duen eragina jakitea				



Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Lan baldintzak		
Kontrol eta aholkularitza kanpaina, beren sektorearen gainerakoaren aldean ezbehar-tasa handia duten enpresetan, tasa hori dakarten arriskuen gainean.	2017-2019	LAAHA
Ezbehar-tasa murrizteko jarduketa berariazkoak, istripu larri eta hilgarrien intzidentzia handiagoa duten jarduera sektoreetan.	Iraunkorra	
Enpresen ekipamenduak egokitzeko eta lantokiak hobetzeko urteko laguntza finantzarioak indartzea eta hobetzea.	2016-2019 Urtekoa	LAAHA
Arriskuen kudeaketa		
Lan istripuen zergatiei buruzko ikerketaren hobekuntza sustatzea, barnean lanaren antolaketaren aldagaiak sarturik, haren ondorioz arriskuak zuzentzeko diziplina anitzeko planak etor daitezten.	2017	LAAHA
Prebentzio sistema		
Enpresendako aholkularitza, prebentzio zerbitzu mankomunatuak beste aukeren aldean dituzten abantailen gainean.	2018	
Prestakuntzarako jardunaldi eta saioak, industriako mantentze-lanak egiten dituzten enpresendako.	2018	
Segurtasun arloko arriskuen kudeaketari buruzko irizpideak bateratzea enpresetako prebentzio modalitate desberdinetako profesionalekin	2017	LAAHA
Informazio sistemak		
Lan Istripuaren Agiria jakinarazteko eskaera eginda arrakastarik izan ez dugunean, kasu horiek eta larritasun bereziko kasuak LGSiri jakinarazteko prozeduraren definizioa.	Iraunkorra	LMA
Programa honetan lehenetsitako jarduera ekonomikoetan segurtasun arloko arriskuak identifikatzeko eta ebaluatzeko erabiltzen diren metodologiak eta emaitzak jakitea	2018-19	LAAHA
Sentsibilizazioa		
Kanpaina alor hauen gainean: ekipamenduen kontsignazioa, arrisku elektrikoa, ekipamendu/makinetan harrapaturik gelditzea, altuerako lanak edo beste batzuk intzidentzia eta larritasun berezia dutenak... barne direla ikerketa fitxak, alertak eta abar.	2018-2019	
Praktika eta portaera seguruen zabalkuntza (webgunea, sare sozialak, egunkariak eta abar), istripu larri eta hilgarri ohikoenen gainean, gisako istripu gehiago saihesteko.	2017-2019	LAAHA
Ikerketa		
Lan istripuen azpiaitorpenaren gaineko azterlana egitea	2018	LMLEA-PIU
Lan Istripuaren Agiriaren azpikontratazioaren aldagaia ustiatzea	2016-2019	LMLEA-LAAHA



Ebaluazioa

<i>Adierazleak</i>
Istripu-tasaren indizeak, lehentasunez esku-hartzeko sail ekonomikoetan
Istripu indizea ekipamenduak egokitzeko eta lantokiak hobetzeko EPELZNren finantzaketa hartu duten enpresetan
Arrisku murriztu edo deuseztatuaren kopurua arriskuen ebaluazioan bildutako guztien aldean, ekipamenduak egokitzeko eta lantokiak hobetzeko EPELZNren finantzaketa hartu duten enpresetan
Esku-hartze kopurua eta ehunekoa lehentasunez jarduteko enpresetan
Zenbat enpresetan dugun istripuen gaineko ikerketen emaitzen berri, horren ehunekoa handitzea
Jarduera adar lehenetsietan, zenbat prebentzioko profesionalek eta prebentzioko ordezkariak parte hartzen duten Lan Osasunaren Zerbitzuak segurtasunari buruz antolatzen dituen mintegi, jardunaldi eta ikastaroetan
Zenbat txosten eman diren EPELZNren diru-laguntza eskaeren gainean



ERAIKUNTZA SEKTOREKO SEGURTASUNAREN AZPIPROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Eraikuntzako obrak toki arriskutsuak dira, berezko arrisku handikoak; mota guztietako istripuak eragiten dituzten arrisku askori loturiko lanak egiten dira bertan. Lan baldintzetan aldaketa etengabeak dituzten tokiak direnez, arriskueta ere aldaketak izaten dira, obren bizitasunaren beraren eraginez. Obretako arriskuak kontrolatzeko zailtasuna da sektorearen berezitasun horren ondorioa; beste faktore batzuk dira enpresen eta langile autonomoen azpikontratazio maila handia, koordinazio egokia beharrezkoa egiten duena, lanaren antolaketa bera (lan-orduak, soma-lana, lan konplexuak egin beharra eta makineria astunaren eta gisakoaren erabilera) eta enpleguak sektorean dituen ezaugarriak (batzuetan prekariora, edo ez oso kualifikatua), baita sektoreko enpresen tamaina ere (gehienetan enpresa txiki eta ertainak, mikro enpresa txiki eta ertainak eta langile autonomoak).

Gainera, berrikuntzari loturiko arriskuak agertzen dira, bai material berriak erabiltzen direlako bai eraikitze metodo berriak sartzen direlako, eta haiekin eskarmentu txikia edo batere ez. Laneko Segurtasun eta Higienarako Institutu Nazionalaren “Eraikuntza sektorean azaleratzen ari diren lan arriskuen gaineko azterlanak”⁶ identifikatzen eta aztertzen ditu Eraikuntza sektorean azaleratzen ari diren lan arrisku garrantzitsuenak; horietariko franko betiko arriskuak dira, testuinguru berri batean. Azterlanaren arabera, sektorean bost arrisku eremu azaleratzen ari dira:

- Enplegu berdea eta hondakinen kudeaketa.
- Biztanleria aktiboa zahartzea, eraikuntzan.
- Arrisku psikosoziala eta arrisku fisikoa elkartzea, eraikuntzan.
- Eraikuntzan gero eta ezagutza handiagoa egotea eragile kimikoekiko esposizioaren ondorioez.
- Eraikuntzan arrisku naturalak handitzea: eguzki erradiazioa.

Eraikuntzako obretan parte hartzen duten eragileen ugaritasunak (sustatzailea, sergurtasunaren eta osasunaren koordinatzaileak, zuzendaritza fakultatiboa, kontratista, bertako prebentziorako baliabideak, azpikontratatistak, langile autonomoak...) agerian jartzen du zer konplexua den prebentzioaren koordinazioa sektore honetan, non arriskuak aldatuz doazen obra gauzatzeko fase desberdinen arabera.

Erakunde publiko desberdinek argitaratutako datuak azterturik, ageri da 2015ean, eraikuntzaren sektorean %6,1 goititu dela intzidentzia indizea 2014aren aldean (65,74 istripu mila langiletik). Izatez, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren “Jarduera lehenetsiak, ezbehar-tasaren arabera. Jarduera ekonomikoen lehenespena, istripu mota guztien eta istripu larri eta hilgarrien tasaren arabera, Biztanleria Afiliatuari jarraikiz doitua. 2015. urtea”⁷ txostenak eraikuntzaren sektorea sartzen du jarduera lehenetsien artean, goiko kuartilan dagoelako, aldi berean, Eraikuntza nahiz Eraikuntza Espezializatuan, hala biztanleria afiliatuaren gainean lan istripuen gertagarritasun neurtzen duen adierazlean, nola bi ataletako intzidentzia indizeetan, aurreko urtearen aldean handitu baitira. Istripu larri eta hilgarriei dagokienez, Eraikuntza espezializatuko jardueren sail ekonomikoak (JESN 43) baizik ez lituzke beteko bi irizpideak: 75 pertzentila gainditzen du bai arriskuen eraginpean dauden pertsonen kopuruan (5.654 langile), bai istripu larri eta hilgarrien intzidentzia indizean.

6

<http://www.insht.es/InshtWeb/Contenidos/Documentacion/FICHAS%20DE%20PUBLICACIONES/EN%20CATA%20LOGO/SEGURIDAD/riesgos%20emergentes%20sector%20construccion%202013/DT%2081-1-13%20riesgos%20emergentes%20meta.pdf>

7

<http://www.oect.es/Observatorio/5%20Estudios%20tecnicos/Actividades%20economicas/Actividades%20prioritarias%20en%20funcion%20de%20la%20siniestralidad/Ficheros/Actprioritarias2015.pdf>



Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, “Nafarroako laneko ezbehar-tasari buruzko 2015eko txostenak”⁸ baieztatu du intzidentzia indizearen gorakako joera, hala gertatzen ari baita sektore honetan 2013az geroztik. 2013an 57,2 istripu izan ziren mila langiletik; 2015ean, berriz, 64,6, hau da, %11 baino gehiagoko gorakada.

Zifra horiek azterturik ondorioztatzen da beharrezkoa dela sektore honetan jarduketa neurriak hartzea, ezbehar-tasak murriztu, lan baldintzak hobetzeko jarraibideak ezarri eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete beharrez, horretarako gizarte eragileak, erakundeak eta instituzio publikoak engaiatuz.

Xede-populazioa

Eraikuntzako obretan esku hartzen duten eragile guztiak; sustatzaitetik haste, obran parte hartzen duen peoi edo langile autonomoraino, eta bereziki:

- Segurtasunaren eta osasunaren koordinatzaileak, bai proiektuaren fasean bai gauzatzeko fasean.
- Zuzendaritza fakultatiboak.
- Toki entitateak.
- Sustatzaileak.
- Kontratistak eta azpikontratistak.
- Langileak.

Helburu orokorrak

1. Sektorean ezbehar-tasa murriztea.
2. Eraikuntzako obretan enplegu, segurtasun eta osasun baldintzak hobetzea.
3. Eraikuntzako obretan laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa hobetzea.
4. Eskura jartzea sektoreko eragileendako garrantzia duen dokumentaziora.

Helburu berariazkoak eta helmugak

	2017	2018	2019	2020
Lan baldintzak				
Sektoreko istripu guztien intzidentzia indizearen hazkuntza geldiaraztea, bereziki istripu larri eta hilgarriei dagokienez	II: x_0	x_0	x_0	x_0
Obretan kontrola egiteko ikustaldien kopurua handitzea	90	120	150	180
Enpresetako prebentzioaren plangintzan enpleguari eta lanaren antolaketari dagozkion baldintzak sartzen ahalegintzea	n_0	$n_0 + \%10$	$n_0 + \%15$	$n_0 + \%20$
Enpresetara egiten diren ikustaldien kanpainetan, baldintzen kontrola egitean egiaztatutako item zuzenen ehunekoa handitzea.	x_0			
Arriskuen kudeaketa				
NOPLOIko Laneko Arriskuen Prebentziorako Atalean istripuen ikerketak hobetzea eta haien epeak murriztea				
Prebentzio plan berariazkoa duten enpresen ehunekoa handitzea	x_0			

8 <http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/F82D4E65-66BD-4016-8EB0-CF3D7EE39CB4/345885/InformeSiniestralidadLaboral2015.pdf>



	2017	2018	2019	2020
Prebentzio sistema				
NOPLOIren jardunaldi eta topaketa berariazkoetara joaten diren prebentzioko profesionalen kopurua handitzea				
Sektorean laneko arriskuen prebentzioa araudiarekin bat antolatzeke modua duten enpresen ehunekoa handitzea				
Prebentzioan prestakuntza duen koordinatzaile / solaskidearen figura bultzatzea enpresa eta obretan				
Informazio sistema				
Prebentzio modalitatea eta prebentzio planen aplikazio maila ezagutzen zaizkien enpresen erregistroa sortzea				
Sentsibilizazioa				
NOPLOIren webgunean eraikuntza arloko edukietara egiten diren ikustaldien kopurua handitzea	x ₀			

Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Lan baldintzak		
Orain arte istripu larriagoak ekarri dituzten lan baldintzen inguruko kontrola eta aholkularitza	2017-2019	LAAHA-LGSI
Eraikuntzako obretara ikustaldiak egiteko kanpainak, LGSIarekin batera egiten direnak barne	2017-2019	LGSI-LAAHA
Arriskuen kudeaketa		
Eraikuntzan, lanari eta osasunari buruzko azterlan eta laneko segurtasun eta osasunerako plan berariazkoen zuzentasuna eta kalitatea sustatzea	2017	LAAHA-LGSI
Prebentzioa kontrolatzeko neurriak ezartzea Nafarroako Gobernuak kontratatzen dituen herrilaretan	2018	LAAHA
Istripu hilgarri, oso larri eta larrien zergatien azterketa, jarduera sektorekako ekintza plan berariazkoak ezartzeko (lan istripu hilgarri eta oso larrien berrikuspena), banaka eta modu erantsian	2017/18/19	LAAHA-TST
Arriskuak ebaluatzeko sistemak birdefinitzea, lanpostuen ebaluazio berariazkoa eta ez generikoa bermatzeko bideak ezarri beharrez	2017	LAAHA-LGSI
Prebentzio sistema		
Lan arloko Agintaritzaren eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren arteko koordinazioa eta lankidetzaren mantentzea laneko arriskuen prebentzioaren arloan, bereziki azken horren xede, irizpide tekniko eta jarduketaren definizioari dagokionez	2017-2019	LAAHA-LGSI
Profesionalendako sentsibilizazio jarduerak (jardunaldiak, saioak eta abar), prebentzioko teknikariak izan gabe ere beren eginkizunetatik mesede egiten ahal badiete laneko segurtasunari eta osasunari eta langileen babesari	2018	LAAHA



	Egutegia	Unitate arduraduna
Eraikuntza obretan prebentzioa sartzeari buruzko lantegi/jardunaldia	2019	
Toki entitateei sostengu eta aholku ematea laneko arriskuen prebentzioaren gainean, bereziki udalerrri txikiei	2018	LAAHA
Jarduketa planen diseinua, lantoki guztietan prebentzioaren antolaketa izan dezaten, legearen arabera	2017	LAAHA-LGSI
Informazio sistemak		
Istripu larri eta hilgarriak gertatu ondoko prebentzio alerten formulazio egokienaren gaineko azterketa	2017	
Nafarroako eraikuntza sektoreko enpresek hautatutako prebentzio modalitatearen ezagutza, ikustaldi kanpainen bitartez eta/edo Egiatztatutako Enpresen Erregistroaren bidez (REA)	2017	LAAHA-EPELZN
Sentsibilizazioa		
Honako hauen gaineko informazioa prestatzea eta hedatzea: altuerako lanak (eskorgei akoplaturiko saskiak, estalkiak eta abar), ekipamenduen kontsignazioa, arrisku elektrikoa, enkofratuak suntsitzea eskoratzeko bikoitzen ondorioz, ekipamendu/makinetan harrapatutako gelditzea, gune konfinatuak	2018	TST
Langileendako prebentzio kanpaina, obren barnean amiantoa kentzeko lanak daudenean	2017	LAAHA-LGSI
Fitxak prestatzea eta hedatzea, honako hauen gainean: segurtasun soka eramangarriak, estalki hauskorak, zurubiak, plataforma jasotzaileak, eskorgei/garabiei akoplaturiko saskiak eguneratzea, enkofratuak: eskoratzeko bikoitzak, gune konfinatuak.	2018	LAAHA
Prebentzioaren kudeaketa errazten duen dokumentazioaren hedapena, enpresa txiki eta ertain eta mikroenpresei dagokienez, lanbide elkargoekin, bizilagunen elkarteekin edo Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin erabil dadin	Iraunkorra	LAAHA
Toki entitateendako egiten diren dokumentuen balorazioa, herri lanen sustatzaile edo/eta kontratista lanak egiten dituztelarik.	2017	LAAHA-NUKF
NOPLOIren webgunea berritzea eta indartzea eraikuntza jarduerari dagozkion edukietan.	2017	LAAHA

EPELZN: Enpresa Politikaren, Enpleguaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusia TST: Talde Sozio Teknikoa. LAAHA: Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Atala



Ebaluazioa

Adierazleak
Sektoreko istripu guztien intzidentzia indizea
Sektoreko istripu larri eta hilgarrien intzidentzia indizea
Lan baldintzak kontrolatzeko kanpainetan egiaztatutako item zuzenen ehunekoa
NOPLOIren jardunaldi eta topaketa berariazkoetara joaten diren prebentzioko profesionalen kopurua
Sektorean laneko arriskuen prebentzioa araudiarekin bat antolatzeko modua duten enpresen ehunekoa
Ikertutako istripuen kopurua
Ikustaldia egin zaien obren kopurua
Prebentzio plan berariazkoa duten enpresen ehunekoa
Prebentzioan prestakuntza duen koordinatzaile / solaskidea duten enpresen ehunekoa
Prebentzio modalitatea ezagutzen zaien enpresen ehunekoa
Webguneko eduki berariazkoen eguneratzeen kopurua
NOPLOIren webgunean eraikuntzari buruz dauden edukien ikustaldi kopurua



BASOGINTZA SEKTOREKO LAN ISTRIPUAK MURRIZTEKO AZPIPROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Nafarroako Basogintza eta Oihangintzan ezbehar-tasak oso handiak dira. 2015ean, ofizialki, 33 istripu izan ziren, guztira 55 langileri eragin zietenak; beraz, intzidentzia indizea da 605,5 istripu 1000 langiletik.

2014an, berriz, 43 istripu erregistratu ziren, guztira 61 langileri eragin zietenak; intzidentzia indizea, beraz, 700,1 istripu izan zen 1000 langiletik.

Hala ere, egiaztatua dago datu hauek ez direla adierazgarriak, ez baita erraz jakiten sektore honetan egiazki zenbat lagun ari diren; gainera, basoen ustiapenean ere ari diren beste enpresa anitz beste JESN batzuetan daude. Bestalde, sektorearen bereizgarriak eta hauteman diren berezitasunak direla eta, pentsatzekoa da balitekeela istripu batzuk aitortu gabe gelditzea. Nolanahi ere, egiazko datuek segur aski ez dute DELT@ erregistroko datuek adierazitako egoera kezkarria apaltzen.

2012az geroztik ezbehar-tasak jarduera ekonomiko guztietan igo badira ere, segur aski jarduera ekonomikoaren gorakadaren ondorioz eta lege aldaketa desarautzaileen ondorioz, ez dugu errealitate gordina saihesten ahal: 2016ko irailean, egun berean, bi istripu hilgarri gertatu ziren bi lantegi desberdinetan, sektoreko bi langileren heriotza ekarri zutenak.

Egitate horrek erakusten du arrisku larri eta hurbil-hurbilekoak dituen jarduera dela eta bere osotasunean heldu behar zaiola. Administrazioaren barnean erakunde desberdinek dute eskumena alor horretan: Mendi Zerbitzua (MZ), Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailatza (LGS) eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (NOPLOI); guztien kezka da lan jarduera honen ezbehar-tasa eta hura eragozteko koordinazioaren beharra. Kezka horren ondorioa izan da jarduketa programa berariazko honen diseinua, basogintzan ezbehar-tasa murrizteko.

Erauzte lanen baldintzek, erabiltzen den makineriak, meteorologiak, bazterren orografiak eta langileen ezaugarriek (atzeritarrak, hizkuntza, kultur maila...) arriskutsu bilakatzen dituzte lan hauek, eta mota askotako peril ugariaren iturri, lan istripuak maiz ekartzen dituztenak.

Halaber, irisgarritasun eskasa dago lantokietara, NOPLOIk eta Lan Ikuskaritzak ez dute jakiten lan horiek non eta noiz egiten ari diren, eta horren ondorioz, egiten dituzten enpresek gutxitan hartzen dituzte, mendian, NOPLOIko teknikarien eta lan-ikuskatzaileen ikustaldiak; enpresen kontrola, beraz, hutsaren hurrengoa da, kontrol dokumentalean baizik ez da oinarritzen, edo, zorigaitzez, istripu larri edo hilgarria gertatua delarik.

Xede-populazioa

Programa hau gauzatuko da Nafarroako oihanetan zura ateratzen ibiltzen diren enpresa eta langile autonomo guztien gainean. Orobat sartzan ahalko dira beren lanak Nafarroan egiten ez dituzten enpresak, baldin eta istripu larri eta hilgarrien maiztasun indize handiak badituzte eta haien helbidea Nafarroan badago.

Helburu orokorrak

1. Sektoreko ezbehar-tasa gutxitzea.
2. Sektoreko enpresetan, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiaren betetze maila handitzea.
3. Enpresek laneko arriskuen prebentzioa berenganatzea.



Helburu berariazkoak eta helmugak

	2017	2018	2019	2020
Lan baldintzak				
Basogintzan, istripu-tasaren intzidentzia eta beste kalte batzuk murriztea	x_0	$x_0\text{-}\%3$	$x_0\text{-}\%5$	$x_0\text{-}\%7$
Ikusitako arrisku egoerei buruz basozainek NOPLOIri egindako gaztiguak gehitzea	-	n_0	$n_0\text{+}\%5$	$n_0\text{+}\%10$
NOPLOIk eta LGSIk ikustaldiak batera egitea Ikustaldi kopurua handitzea	-	10	10	10
Kontrol dokumentala egiten zaien enpresen kopurua handitzea	-	25		
Prebentzio sistema				
Prebentzio zerbitzu mankomunatuaren eraketa lortzea		1	1	1
Oihan ustiategiak zuzeneko prebentzio baliabidearen figuraz hornitzea lortzea.	0	enpresen $\%20$	$\%40$	$\%60$
Administrazio publikoak kontrolatzea enpresak zuzeneko prebentzio baliabideko zereginetan nola aritzen diren.		$\%100$	$\%100$	$\%100$

Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Lan baldintzak		
Esku-hartze tldearen ikustaldiak, araudia modu larrian eta behin eta berriz betetzen ez denean. Errekerimendua, egiaztapena eta zehapen prozeduraren hasiera, LGSiren aldetik, bidezko bada.	Iraunkorra	LAAHA-LGSI-MZ
Lehentasunez esku hartzeko enpresen hautapena, NOPLOIk, LGSIk eta Basozaintzak (BZ) eta mendi teknikariak ikustaldia elkarrekin egiteko, ezarritako irizpideei jarraikiz ¹	2017	LAAHA-LGSI
Prebentzio sistema		
Lantaldearen eraketa, eskualdeko lan-ikuskatzailearekin, Nafarroako Gobernuako mendi teknikariarekin, eskualdeko BZrekin eta NOPLOIko teknikariarekin (hemendik aitzina, Esku-hartze Taldea), kasuan kasuko ikustaldia egiteko.	2016	LAAHA-LGSI
Nafarroan prebentziorako zerbitzu mankomunatua eratzeko bultzada, azpiprograma honetako sail ekonomikoetarako	2017	TST
Komunikazio sistema eraginkorra ezartzea mendizainen, NOPLOIren eta LGSIren artean, zura ateratzen dabiltsan langileen arrisku egoeren berri emateko	2017	
Zuzeneko prebentzio baliabidearen gaikuntza eta jarduketak egiaztatzea, NOPLOIk eta LGSIk lantokietara egiten dituzten ikustaldietan	2017	
Basozainendako prestakuntza ikastaroak, basogintzako arrisku larrienak identifikatzeko eta BZk segitu beharreko protokoloa hedatzeko eta abiarazteko, laneko arriskuen prebentzioan arauak modu larrian eta/edo behin eta berriz betetzen ez badira. Eskualdeka eginen dira.	2017	LAAHA-MZ



	Egutegia	Unitate arduraduna
Jarduera ekonomiko honetan arriskuak kudeatzeari buruzko lantegiak, prebentzio modalitate guztietako prebentzio teknikariek. Arlo hauek azpimarratuko dira: arriskuen ebaluazioa, enpresa jardueren eta langile autonomoen azpikontratazioaren koordinazioa, istripuen ikerketa	2017	LAAHA-LGSI
Prebentzioaren profesionalekin jarduketa eta komunikazio irizpideak adostea, basolanetako arriskuen kudeaketaren gainean	2017	LAAHA
Erakundeen artean jarduteko protokoloa prestatzea eta ezartzea BZren eta NOPLOIren artean, prebentzioari buruzko araudia ez dela betetzen ari detektatzen denetarako, LGSIRi horren berri emanez	2017	LAAHA-MZ
Enpresak tresnaz hornitzea, ustiategi guztietan prebentzio baliabideak izatea bermatzeko, prebentzio baliabide horiek hartu behar duten prestakuntzaren antolaketa barne	Iraunkorra	TST
Kanpainaren amaieran informazio jardunaldi bat egitea eskuratutako datuen berri emateko	2019	TST
Informazio sistemak		
Zentsu bat egitea sektoreko enpresa, prebentzio modalitate eta langile autonomoekin, azpiprograma aplikatzeko	2017	TST
Mapa bat egitea, basogintzako zura ateratzen parte hartzen duten eragileak, prozedurak eta lan baldintzak Nafarroan zertan dauden deskribatzeko	2017	TST
Sentsibilizazioa		
Azpiprograma honen aurkezpen ofiziala eta hedapena, sektoreko enpresa eta langile autonomoen artean, baita prebentzio zerbitzuen artean ere	2017	LAAHA-LGSI-MZ
NOPLOIren webgunearen berrikuspina, eguneratu eta interesa duten dokumentu eta estekak sartu beharrez	2018	LAAHA

1: Plantillaren tamaina handiagoa, lan istripu eta lanbide eritasunen indize altuagoak, istripu larri eta hilgarrien aurrekariak eta beste batzuk, aprobetxamendu motaren arabera, baita 25 enpresaren hautapena ere, haiei kontrol dokumentala egiteko

Ebaluazioa

Adierazleak
Istripu-tasaren intzidentziaren eta beste kalte batzuen bilakaera, Basogintzan
Basozainek arrisku egoerei buruz NOPLOIri egin dizkioten gaztiguen kopurua
NOPLOIk eta LGSIk lantokietara egiten dituzten ikustaldien kopurua
Kontrol dokumentala egiten zaien enpresen kopurua
LGSIk egindako errekerimenduen kopurua
Zehapen espedienteen kopurua
Prebentzio baliabide hornitu eta prestatuen kopurua
Azpiprograma honen edukietan egindako ikustaldien kopurua, NOPLOIren webgunean



BIDE SEGURTASUNAREN AZPIPROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Nafarroan, trafiko istripuak lan istripuen %8,4 eta istripu larri eta hilgarrien %14,08 izan ziren 2015ean. *In itinere* gertatutako trafiko istripuen intzidentzia indizeak igo dira 2,9 x 1000 izatetik 2012an, 3,4 x 1000 izatera 2015ean⁹.

Erabilitako terminologia desberdina ulertzeko, definizio hauek biltzen dira dokumentu honetan:

Lan istripua¹⁰: *langileak besteren kontura egiten duen lanean edo lanaren ondorioz izandako zeinahi gorputz-kalte*. Horren barnean espresuki sartzen da *langileak lantokira bidean edo lanetik itzultzean izandakoa*.

Biktimak eragiten dituen trafiko istripua¹¹: *ezaugarri hauek biltzen ditu: trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legeriaren xede diren bide edo lur-sailetariko batean gertatzea edo abiapuntua izatea, horren ondorioz pertsona bat edo gehiago hilik edo zauriturik gertatzea, eta hartan, gutxienez ere, abian ari den ibilgailu bat nahasirik egotea*.

Definizio horietan oinarriturik, trafikoko lan istripuzat hartzen dira lanaldian “*in misio*” egindako joan-etorrien ondorioz pairatutako “trafiko istripuak”, baita lantokira joatean edo handik itzultzean “*in itinere*” pairatutako trafiko istripuak ere.

Alabaina, lanaren esparruan, ez ditugu ahanzi behar beste istripu batzuk, hain zuzen ere, “trafiko istripuzat” hartuak izateko ezaugarriak izan gabe ere, lanerako ekipamendu mugigarriak eta oinezkoak nahasten dituzten “lan istripuak”. Istripu hauei, aurrekoekin batera, esaten zaie **laneko bide istripuak**.

Arestian adierazi bezala, 2015ean trafiko istripuak bajak eragindako lan istripu guztien %8,4 izan ziren; haietarik, %6,2 *in itinere* izan ziren eta %1,9, *berriz, in misio*.

Nafarroako Bide Segurtasunaren 2013-2020rako Estrategian¹² (hemendik goiti, NBSE) lan munduari aplikatzen ahal zaizkion jarduketak anitz biltzen dira. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (hemendik goiti, NOPLOI) agertzen da haren plangintzaren arduradun.

NBSEaren jarduketak errepideko eta hiri esparruko ezbehar-tasa murrizteari begira pentsatuta daude; Nafarroako Lan Osasuneko III. Planeko jarduketak (hemendik goiti, NLOP), berriz, bideratuak daude kalteak saihestera langileen osasunean. Hartara, NBSEk kontuan hartzen ditu “trafikoko lan istripuak” (“*in misio*” nahiz “*in itinere*” gertatuak); III. NLOPek, berriz, “trafikoko lan istripuak” nahiz gainerako “laneko bide istripuak” biltzen ditu.

Xede-populazioa

Laneko bide istripuak izateko arrisku handiagoa duten enpresa eta langile multzoak.

Helburu orokorrak

1. Segurtasuna hobetzea lanarekin ikusteko duten joan-etorrietan.
2. Laneko joan-etorrietan bide segurtasunaren baldintzak hobetzeko jarduketak sustatzea.

⁹ Laneko istripuak Nafarroan. 2015. urtea. Laneko Medikuntzaren eta Lan Epidemiologiaren Atala. NOPLOI.

¹⁰ Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 156. artikulua.

¹¹ INT/2223/2014 Agindua, urriaren 27koa, Trafiko Istripuen Biktimen Erregistro Nazionalarentzako informazioa jakinarazteko modua arautzen duena.

¹² Nafarroako Gobernuaren Nafarroako Bide Segurtasunaren 2013-2020rako Estrategia garatzen da Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Bide Segurtasunaren 2011-2020rako Estrategia aplikatuz; hura, berriz, garatzen da Europako Batzordearen dokumentu hau aplikatuz: Bide segurtasunaren espazio europar baterantz, bide segurtasunari buruzko 2011-2020rako orientabide politikoak



3. Laneko bide istripuak izateko arrisku handiagoa duten enpresa eta langile multzoetan, laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa alor honetan zer egoeratan dagoen jakitea.
4. Enpresen esku-hartze aktiboa lortzea bide istripuetan.
5. Industrialde batean mugikortasun plan pilotu bat abiatzea eta garatzea.

Helburu berariazkoak eta helmugak

	2017	2018	2019	2020
Lan baldintzak				
Laneko bide istripuen gorakada geldiaraztea	x_0	x_0	x_0	x_0
Industrialde batean mugikortasun plan pilotu bat garatzea				
Arriskuen kudeaketa				
Laneko bide segurtasunerako planak dituzten enpresen kopurua nabarmen handitzea	x_0	x_0+2	x_0+3	x_0+4
Prebentzio sistema				
Parte-hartzaileen kopurua eta ebaluazioa handitzea laneko bide segurtasunari buruz LOZek antolatzen dituen prestakuntza ekintza, jardunaldi, mintegi eta abarretan	-			
Informazio sistema				
Laneko bide istripu-tasaren egiazko tamaina azaleratzea, inplikaturiko administrazio publiko guztiak koordinatuz				
Sentsibilizazioa				
Laneko bide segurtasunari buruz informatzeko materialen hedapena zabaltzea, laneko bide istripuen maiztasunik handiena duten JESN sail ekonomikoko enpresetan	-			

Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Lan baldintzak		
Kontrol eta aholkularitza kanpainak laneko arriskuen prebentzioaren arloan, misioan joan-etorri gehien duten sektore edo jardueretarako (garraiolariak, saltzaileak, bisitariak...)	Iraunkorra	LAAHA
EPELZnK laneko ekipamendu eta lantokiak hobetzeko urtero egiten duen deialdian bide segurtasunerako neurriak diruz laguntzeko aukera aztertzea	2017	NOPLOI-EPELZN
Arriskuen kudeaketa		
Enpresetan bide segurtasuneko planak sustatzea (8.1.6. ekintza, NBSE 2013 - 2020)	Iraunkorra	LAAHA
Ibilgailu astunetan seinale islatzaileen erabilera sustatzea	2018	LAAHA
Enpresetan <i>in misio</i> nahiz <i>in itinere</i> gertatzen diren trafiko istripuen ikerketa egitea eta sustatzea	2017	LAAHA



	Egutegia	Unitate arduraduna
Mugikortasun plan pilotua Sarrigurengo industrialdean, dagokien beste administrazio, entitate eta enpresekin elkarlanean	2018ko urtarril-ekaina	LAAHA
Bide segurtasuneko arriskua arriskuen ebaluazio orokorretan sar dadin sustatzea	2017	LAAHA
Prestakuntza jarduerak egitea laneko bide segurtasunean: jardunbide egokiak, edukiak sartzea prebentzioko ikastaro orokorretan, gidatze seguruari buruzko prestakuntza...	2018	LAAHA-PIU
Prebentzio sistema		
Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak eta enpresek <i>in misio</i> nahiz <i>in itinere</i> gertatzen diren trafiko istripuen gainean egindako ikerketa eta azterketen ezagutza	Urtekoa	LAAHA
Laneko bide istripu-tasa kudeatzeko prozedurak partekatzea prebentzio modalitate desberdinekin	Iraunkorra	LAAHA - PIU
Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalako laneko bide segurtasunaren lantaldean aktiboki parte hartzea	Iraunkorra	LAAHA
Informazio sistema		
"In misio" joan-etorriak dituzten enpresetan laneko bide segurtasunari buruz ikustaldiak egiteko kanpaina, arrisku hau nola kudeatzen duten jakin beharrez ¹	2017/2019	LAAHA
Sentsibilizazioa		
Nafarroako Bide Segurtasunaren 2013-2020rako Estrategiaren garapena, lanean gidatzen duen populazio guztiari zuzendua	Iraunkorra	LAAHA
NOPLOIk Nafarroako Bide Segurtasunaren 2013-2020rako Estrategiari dagokionez egiten dituen jarduketak (egunkariak, sare sozialak eta abar) eta jardunbide egokiak hedatzea.	Iraunkorra	PIU-LAAHA

1: Laneko bide segurtasuna nola dagoen jasota arriskuen ebaluazioan, arriskuen ebaluazioan proposatutako aurreneurriak, laneko bide segurtasunaren arloan planifikatu eta betearazitako neurriak, bide segurtasuneko planik ote duen (bestela, 8.1.4.), trafikoko lan istripuak ikertzen ote diren (bestela, 8.2.3.), prebentzioaren aldetik interesa duten ibilgailuetan seinale islatzailerik erabiltzen ote den (bestela, 8.4.2.) eta abar.

Ebaluazioa

Adierazleak
Laneko bide istripuen kopurua
Laneko bide segurtasunaren gaineko planak dituzten enpresen kopurua
Parte-hartzaileen kopurua eta ebaluazioa laneko bide segurtasunari buruz LOZek antolatzen dituen prestakuntza ekintza, jardunaldi, mintegi eta abarretan
JESNeko sail ekonomikoen barnean laneko bide istripuen tasarik handiena duten enpresen ehunekoa, zeinei laneko bide segurtasunari buruz informatzeko zabaltzen diren materialak ailegatzen baitzaizkie



GARRAIO JARDUERAREN AZPIPROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

JESNko garraioaren sailak, 2015ean, 5.000 langile baino gehiago biltzen zituen Nafarroan. Lan istripu bajadunen intzidentzia indizea da 41,3 istripu 1000 langiletik, eta %51,8 autonomoen kasuan. Haren intzidentzia nahiz langile kopurua P₇₅-ren gainera daudenez, jarduera hau sartu da Istripuak gutxitzeko programan. 2012az goerotik ezbehar-tasak handitzen ari dira; %4,3% 2014tik 2015era.

Garraioan, istripu-tasa %12,5 baizik ez da bidean izan, 2015ean. Zamalanak, kabinara edo ibilgailura igotzea edo jaistea egoera kritikoak dira, segurtasunarekin baino areago, ergonomiarekin ikusteko dutenak.

Istripu arriskutik harata, Nafarroako Lan Baldintzen eta Osasunaren gaineko III. Inkestan agertzen dira zer arriskuren eraginpean egon uste duen, bere lanean, garraioaren sail ekonomikoko langileak. Jarrera eutsiak edo behartuak (langileen %42,3), gorputz osoko bibrazioak (%21) edo gorputz eta goiko gorputz-adarrekoak (%7), karga astunak altxatzea (%23,1), eragile kimikoen arnastea (%31,6). Langileek, eragile kimikoen eraginpean daudela uste izanik ere, horien ondorioak zein diren ez dute beti jakiten; hori lanbidea gidatzea dutenen artean gertatzen da beste inongo lanetan baino maizago (%48,4). Arrisku nola edo hala hedatuak dira espazio falta (%27,9) eta argiztapen desegokia (15,1) ere.

Jarduera honetan agertzen diren arrisku psikosozialeko elementuen artean aipatzen dira gidarien lan betiberdina (%52,6), gaitasunak garatzeko ezintasuna (%28,4) eta hitzezko erasoak (14,9).

Aipaturiko adierazpen horiekin bat, garraioa langileek diote inkestaren aurreko urtean oinazea izan dutela bizkarraren behe aldean (%51,1), garondoan eta lepoan (%27,2) eta sorbaldan (%22,7). %27,4ren iritziz, bere osasun egoera, orokorrean, hala moduzkoa, txarra edo oso txarra da.

Osasun garraioa ere jarduera honen barnean dago; hartan egun-egunerokoak dira denboraren aldetiko presioa, arrisku biologikoekiko esposizioa edo jokabide erasokorrak jasan beharra.

Garraioan hainbeste langile autonomo eta enpresa handiengoendako lan egiten duen hainbeste mikroenpresa izanda, zorroztu behar da prebentzio jarduerak koordinatzeko tresnen aplikazioa.

Langileen partaidetza jarduera adar guztietan garrantzitsua bada prebentzio planen eraginkortasuna bermatzeko, eskarmentuak erakutsi duenez, garraioan nahitaezkoa da, enpleguaren ezaugarrien kariaz, langileen iritzia kontuan hartzea edozein plan edo kanpaina diseinatzeke.

Osasunaren zaintzari dagokionez, garraiolariena da azterketa medikoak maizen izaten dituzten kolektiboetarik.

Xede-populazioa

Garraio jarduerak egiten dituzten langileak, bereziki:

- Salgaien errepide bidezko garraioa,
- Bidaiarien garraioa (autobusak –linea erregularrak, eskola garraioa, bidaia bereziak- , taxiak),
- Osasun garraioa
- Ibilgailuen bidezko biltegi-irratze-lanak
- Logistikako enpresak
- Posta banaketa
- Bizikleta bidezko banaketa

Helburu orokorrak

1. Garraio jardueran lan istripuen gorakada murriztea.
2. Arrisku desberdinen eraginpean egon uste duten langileen ehunekoa gutxitzea.
3. Garraio enpresetan prebentzio plan integralak bultzatzea.



Helburu berariazkoak eta helmugak

	2017	2018	2019	2020
Lan baldintzak				
Garraio jardueran istripuen intzidentzia indizea geldiaraztea	x_0	x_0	x_0	x_0
Jarduera honetan, arrisku desberdinen eraginpean egon uste duten langileen ehunekoa gutxitzea				
Arriskuen kudeaketa				
Prebentzio plan berariazkoak dituzten xede-enpresen ehunekoa handitzea	n_0	n_0+3	n_0+5	n_0+7
Osasunaren banakako zaintzaren eraginkortasuna hobetzea (detekzio goiztiarra).				
Garraio jarduerako ordezkariendako prestakuntza ekintzen kopurua handitzea.	-			
Informazio sistemen hobekuntza				
Beren prebentzio planak NOPLOIren eskutan utzi dituzten garraio enpresen ehunekoa handitzea	0	n_0	$n_0 \times 2$	$n_0 \times 3$
Sentsibilizazioa				
Langileen ehunekoa handitzea zeinei ailegatzten baitzaie beren jardueraren arriskuei buruzko informazioa				

Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Arriskuen kudeaketa		
Protokolo bat prestatzea eri infekto-kutsakorren osasun garraioaren edo arriskua duten beste lekualdatzeen gainean	2017	LOZ
Gidariendako azterketa mediko berariazkoarako gida ezartzea	2018	LMLEA
Garraio enpresetako prebentzio modalitate desberdinekiko topaketa, arriskuak kudeatzeko irizpideak ezagutu eta partekatu beharrez	2017	LAAHA-PIU
Bide segurtasunari buruzko programaren esku-hartzeak programa honetan aplikatzea	Iraunkorra	LAAHA
Prebentzio sistema		
Garraio zerbitzuak erabiltzen dituzten enpresen artean prebentzioaren koordinazioa sustatzea	Iraunkorra	LAAHA
Informazio sistema		
Nafarroako jardueraren deskribapena: enpresak, haien prebentzio modalitateak eta arriskuaren kudeaketak garraioan dituen ezaugarriak.	2018	PIU
Sentsibilizazioa		
Kanpainak egitea gidarien lan arriskuen eta jokabide osasungarrien gainean	2019	NOPLOI
Profesional hauendako sentsibilizazio eta informazio kanpaina diseinatzea eta aitzina eramatea	2018	LAAHA-PIU



	Egutegia	Unitate arduraduna
<i>Ikerketa</i>		
Garraio sektorean osasunari egun egiten zaion zaintzaren azterketa, hura hobetzeko xedez	2018	LMLEA
Garraioko langileen artean ezar litezkeen aurreneurrien azterlan kualitatiboa	2017	LAAHA

Ebaluazioa

Adierazleak
Istripuen intzidentzia indizea garraio jardueran
Garraio jarduerako langile eta/edo ordezkariendako prestakuntza ekintzen kopurua eta ebaluazioa
Langileen zer ehunekok uste duen arrisku desberdinen eraginpean dagoela
Langileen zer ehunekoraino ailegatzen den beren jardueraren arriskuen berri ematen dien kanpaina
Enpresen zer ehunekok dituen prebentzio plan integralak
Enpresen zer ehunekok utzi dituzten NOPLOIren eskutan garraio jardueraren gaineko beren prebentzio planak



ENPRESA JARDUERAK KOORDINATZEKO AZPIPROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Bi enpresak edo gehiagok lantoki bera partekatzen dutelarik, gerta daiteke bakoitzaren jarduerak berekin dakartzan lan arriskuak handitzea:

- a) Horietarikoren batek ohikoa ez den lantoki bateko ezaugarri egiturazko edo berezkoen berri okerra izateagatik.
- b) Beste enpresak zertan ari diren ez jakiteagatik eta, beraz, besteek sorrarazten dituzten arriskuetatik defendatu ezin izateagatik.
- c) Jarduera desberdinen elkarreragin kontrolik gabeagatik.

Beraz, arrisku gehigarri honen kontrol egokia lortzeko esku-hartzearen ardatza da informazioa trukatzeko eta jarduketak koordinatzeko bideak ezartzea, aipatu hiru arrisku faktoreak gainditzeko aukera izan dadin.

171/2004 Errege Dekretuaren hitzetan, hona hemen enpresen arteko koordinazioaren xedeak:

- Lantokia partekatzen duten enpresek prebentzio ekintzen printzipioak modu koherente eta arduratsuan aplikatzea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 15. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Lantokia partekatzen duten enpresek lan metodo egokiak aplikatzea.
- Lantokian gauzatzen diren jarduera desberdinen arteko elkarreraginaren kontrola.
- Lantokia partekatzen duten enpresei eragiten ahal dieten arriskuen eta beraiei aitzintzeko ezartzen diren neurrien arteko egokitasuna

Ikusten denez, koordinazioa da lantokia partekatzen duten enpresa bakoitzaren betebeharrak autonomoa, baina aldi berean baldintza da Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak ezartzen dizkien beste betebeharrak zuzen bete ahal izateko; konparaziorako, arriskuen ebaluazio osoa egitea eta prebentzio jarduerak planifikatzea. Lantokia partekatzen duen edozein enpresatan, arriskuaren ebaluazioa eta prebentzio jardueren plangintza ez daitezke ez zuzen ez eraginkorki egin, lantokia partekatzen duten beste enpresen arriskuak kontuan hartu eta kudeatu gabe.

Helburu orokorrak

Enpresa desberdinek parte hartzen duten istripuen kopurua ahalik eta gutxiena izatea.

Helburu berariazkoak eta helmugak

	2017	2018	2019	2020
Istripuen intzidentzia indizea geldiaraztea enpresa bat baino gehiagoko langileek, autonomoak barne, parte hartzen duten jarduera guztietan	X ₀	X ₀	X ₀	X ₀



Ekintzak, kronograma, unitate arduraduna

	Egutegia	Unitate arduraduna
<i>Informazio sistemak</i>		
Kanpaina, enpresek trukutzen dituzten argibide eta jarraibideen ezaugarriei buruz eta aldi bereko enpresa titularreko eta enpresa nagusiko prebentzioko ordezkarien eskubideei buruz	2018	PIU - LOZ
<i>Sentsibilizazioa</i>		
Azpikontrazioak langile eta enpresei ekartzen dizkien arrisku erantsiei buruzko sentsibilizazio eta informazio kanpainak diseinatzea eta aitzina eramatea	2018	LOZ- LGS
<i>Ikerketa</i>		
Kontratazioaren eta azpikontrazioaren ondoriozko arriskuen azterketa eta deskribapena	2017	PIU- LOZ



2. GIHAR-HEZURRETAKO ARAZOEI AITZINTZEKO PROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Lanetik heldu diren gihar-hezurretako arazoak (GHAK) Europako osasun problema handienetarikoa da; horrela gelditu da agerian *Lan baldintzen gaineko Europako VI. Inkestan* (EWCS 2015), *Lan baldintzen gaineko VII. Inkesta Nazionalean* (ENCT 2011) eta *Nafarroako Lan Baldintzen eta Osasunaren gaineko III. Inkestan* (2016).

Lan istripu baten ondorioz gertatzen ahal badira ere, gehienetan ergonomiarekin eta antolaketarekin ikusteko duten arrisku faktoreen eraginpean luzaz-edo egonda gertatzen dira: mugimendu errepikakorak, zamalanak eskuz egitea, jarrera behartuak, erritmo handiak, etenaldirik ez eta abar. Bizkarrari, lepoari, sorbaldari eta goiko gorputz-adarrei eragin ohi diete, beheko gorputz-adarrei ere eragiten ahal badiete ere. Osasun arazoen artean askotarikoak dira, molestia txikietatik muga funtzionalen iturri diren larriagoko beste batzuetara; horien artean daude patologia kronikoak, oneratzeko zailak, lanpostua utzi beharra ekartzen eta epe ertain-luzean osasun arazo kronikoak eta mendekotasun egoerak sorrarazten ahal dituztenak.

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak bi kanpaina egin ditu arazo honen gainean: 2000koa, “*Bizkarra eman GHAEi*” leloa izan zuena, eta 2007koa, “*Karga arindu*”. Kanpainetan, GHAK modu integratuan kudeatzeko ikuspegia bultzatzen zen.

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Espainiako 2015-2020ko Estrategiak honako hau ezartzen du bere jarduketara ildoetan: “Ekintza Plana diseinatzea eta ezartzea gihar-hezurretako arazoak gutxitzeko” (3.A.3 helburua)

Osasunaren eta Laneko Segurtasunaren gaineko EBren 2014-2020ko esparru estrategikoari buruz Europako Parlamentuak 2015eko azaroaren 25ean emandako Ebazpenean, Batzordeari eskatzen zaio neurriak har ditzala eta lege tresna global baten proposamena luze gabe aurkez dezala GHAEei buruz, prebentzio eraginkorra hobetzeko eta haien eragileei heltzeko. Horretarako, kontuan hartu behar da haien multikausalitatea, emakumeak zer arrisku berariazkoren eraginpean dauden, 55 urte baino gehiagoko langileen sentiberatasun berezia eta enplegu bat eskuratzeko edo gordetzeko izan lezakeen eragin mugatzailea.

2015ean, Nafarroan, lan istripuen %39,5 gehiegizko esfortzuak eragin zituen (71 forma - Delt@ parte) eta lanbide eritasunen %90,2 II. multzokoak izan ziren (eragile fisikoek sortutako lanbide eritasunak).

Programa honetarako populazioa lehenesteko, gehiegizko esfortzuek eta II. multzoko lanbide eritasunek gehien jotzen dituzten jarduerak identifikatu dira, eta lehenespena eginez intzidentzia indizeari eta 2009ko JESNko jardueren bi digituko sailaren arabera populazio afiliatuari jarraikiz, jarduteko lehenetsun handieneko koadrantean dauden jarduerak hautatu dira.

Gehiegizko esfortzuengatik gehien nabarmentzen diren zortzi jarduerak 2014an gailendu ziren berak dira. II. multzoko lanbide eritasunengatik gehien nabarmendu diren zortzi jardueretatik hiruk bat egiten dute gehiegizko esfortzuengatik gehien nabarmentzen diren jarduerekin.

Xede-populazioa

Ondoko taulan ikusten ditugun 2009ko JESNko sailak dira lanbide eritasunen agiriari (II. multzokoak, eragile fisikoek sortuak) eta gehiegizko esfortzuen ondoriozko lanaldiko lan istripu bajadunei ebakigune berak aplikatzearen ondoriozkoak: intzidentzia indizearen eta eraginpean dauden langileen kopuruaren 75 pertzentila.

Bi kalte motetan, berak dira intzidentzia handiena duten jarduera ekonomikoak, eta langile kopuru handiena dutenak.



Taula: Xedeko lan populazioak, GHAK gutxitzeko programan

JESN	Jarduera ekonomikoa	Lang. kop.	I. I. LLI ¹	I.I. EP ²
10	Elikagaien industria	11.432	19,2	9,18
22	Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa	3.580	19,6	12,29
25	Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoak salbu	5.654	23,0	9,02
43	Eraikuntza espezializatuko jarduerak	5.654	21,2	6,19
45	Ibilgailu motordunen eta motozikleten salmenta eta konponketa	3.313	19,0	4,53
78	Enpleguarekin uztartutako jarduerak	3.857	24,9	6,22
87	Laguntza egoitza-establezimenduetan	4.160	29,1	4,81
88	Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuen jarduerak	3.678	19,0	5,17

1: Lanorduetako lan istripu bajadunen intzidentzia indizea $\times 1.000$

2: Lanbide eritasunen intzidentzia indizea $\times 100.000$

* Sindikatuek eta enpresek eskatuta, ondoko taldeak sartu dira

	Garbiketa jarduerak			
24	Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko produktuen fabrikazioa			
16	Nekazaritza jarduera			

Aise ikusten denez, 8 jarduera ekonomikoetatik 6tan istripuak gutxitzeko programarako berak dira lesio ergonomikoen indize handienak dituzten jarduera ekonomikoak.

Lesio ergonomikoei dagokienez, bi jarduera ekonomiko berri agertzen dira, Enpleguarekin uztartutako jarduerak (aldi baterako laneko enpresak) eta Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuen jarduerak.

III. NLBOIaren emaitzek agerian jartzen dute arrisku ergonomiko desberdinen eraginpean daudela sektore ekonomiko guztietako langileak eta, bereziki, haien langintzetako batzuk. Metalgintzakoak, jarrera eta mugimendu errepikakorren eraginpean; eskulanetakoak ere azken horien eraginpean; eraikuntzakoak, gainera, eskuzko zamalanen eta abarren eraginpean. Langintzaz, industriako behar-ginek, eraikuntzako langileek eta gidariek uste dute hiru arriskuen eraginpean daudela.

Helburu orokorrak

1. Lehentasunez jarduteko JESNetan sailkaturik dauden enpresetako lanarekin ikusteko duten gihar-hezurretako arazoaren prebentzioaren bultzada.
2. Partaidetzan oinarrituriko metodologiaren erabileraren sustapena, arrisku ergonomikoak identifikatzeko eta hautemandako arrisku egoerak zuzentzeko.
3. Ebaluatzeko metodo berariazkoen aplikazioaren sustapena.



Helburu berariazkoak eta helmugak

	2017	2018	2019	2020
Arriskuen kudeaketa				
Gehiegizko esfortzuaren ondoriozko lan istripuen intzidentzia indizearen gorakada geldiaraztea	x_0	x_0	x_0	x_0
II. multzoko lanbide eritasunen indizearen gorakada geldiaraztea JESN lehenetsietako enpresetan	x_0	x_0	x_0	x_0
Arrisku ergonomikoak identifikatzeko eta hautemandako arrisku egoerak zuzentzeko partaidetzan oinarrituriko metodologiak erabiltzen dituzten enpresen kopurua modu nabarmenean handitzea	n_0	$n_0 \times 2$	$n_0 \times 3$	$n_0 \times 4$
Partaidetzan oinarrituriko metodologiak bultzatzea arrisku ergonomikoen ebaluazioetan				
Arriskuak ebaluatzeko metodo berariazkoak erabiltzen dituzten enpresen kopurua handitzea	n_0	$n_0 + 5$	$n_0 + 10$	$n_0 + 20$
Sentsibilizazioa				
Gihar-hezurretako arazoan gainean LOZek prestatutako edo ikus-onetsitako materialen kopurua handitzea				

Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Lan baldintzak		
Kontrol eta aholkularitza kanpainak gihar-hezurretako arazoan intzidentzia handiena duten enpresetan	2017/2019	LAAHA
Arriskuen kudeaketa		
Enpresei bultzada ematea, jatorri profesionaleko patologiak, bereziki gihar-hezurretakoak, ikertzeko gainerako eragile eskudunekin batera, horren emaitzak aurreneurri eraginkorrei abia eman diezaien	2018	LAAHA-LMA
Prebentzio sistema		
LGSIEkin adostutako irizpideen dokumentu bat prestatzea, enpresetako arrisku ergonomikoaren kudeaketari buruz	2017	LAAHA
Prebentzio zerbitzuendako aholkularitza plana, laguntza emateko legeria bete dezaten zailtasun handienak dituzten alderdietan, hautemandako beharren arabera	2017	GT
Ergonomia arloan estatuan ari diren lantaldeekiko elkarlana handitzea	Iraunkorra	LAAHA
Elkarlana ergonomia arloan, ekintza plan honetako beste programa eta azpiprogramekin, zehatz-mehatz, kalteberatasun berezia dutenendako azpiprogramekin	2017	LAAHA-LGSI



	Egutegia	Unitate arduraduna
<i>Informazio sistema</i>		
Enpresetan arrisku ergonomikoei buruz egiten duten kudeaketaren ezagutza	2017	LAAHA
<i>Sentsibilizazioa</i>		
Parte-hartzea Lanerako Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziaren "lan osasungarriak" izeneko kanpaina europarretan, ergonomiako edukiak sarturik	2016/2017	TST
<i>Ikerketa</i>		
Arrisku ergonomiko eta psikosozialekiko esposizioaren gaineko ikerketaren ildoak mantentzea eta indartzea, arreta berezia jarritz faktore hauetan: betebeharrak emozionalak, lana eta bizi pertsonala bateratzea, lanaren areagotzea eta estresa eragiten duten beste faktore batzuk.	2017/2019	LAAHA-LMA-PIU
Gihar-hezurretako arazoei loturiko alderdien gaineko ikerketa eta azterlanen sustapena eta haien emaitzen hedapena	2017	LAAHA

Ebaluazioa

Adierazleak
Gehiegizko esfortzuaren ondoriozko lan istripuen intzidentzia indizea gutxitzea
II. taldeko EPen intzidentzia indizea lehentasunez jarduteko JESNetan sailkaturiko enpresetan
Arrisku ergonomikoak identifikatzeko eta hautemandako arrisku egoerak zuzentzeko partaidetzan oinarrituriko metodologiak erabiltzen dituzten enpresen kopurua
Arriskuak ebaluatzeko metodo berariazkoak erabiltzen dituzten enpresen kopurua
Gihar-hezurretako arazoei buruz egindako argitalpenen kopurua
LOZaren partaidetza hartzen duen nazio mailako lantaldearen bilera kopurua



3. ARRISKU HIGIENIKOEN KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Nafarroako Lan Osasuneko III. Planak arrisku higienikoak jasotzen ditu bere sei ildo estratetikoen bitan.

Hartara, esparru estrategiko europarraren erronkak biltzen dira haren 3. ildoan, xede baitu lan baldintzak eta osasunari egiten zaizkion kalteen prebentzioa, "lanari loturiko eritasunen prebentzioa hobetzea, egungo arriskuak, arrisku berriak eta azaleratzen ari direnak borrokatuz"; haiei dagokienez besteak beste nabarmentzen ditu substantzia kimikoekiko esposizioari loturiko eritasunak.

Bestalde, 5. ildoan, laneko arriskuen gaineko ezagutza eta hedapena hobetu beharrez, aditzera ematen da funtsezkoa dela ikertzea arrisku berriak non eta zenbateraino agertzen edo azaleratzen ari diren, besteak beste, eragile kimikoekiko esposizioa (kantzerigenoak eta nanomaterialak nabarmenduz), eta orobat funtsezkoa dela arrisku horien gaineko prebentzioari eta kontrolari buruzko aurrerapen zientifikoak hedatzea.

Aipatzekoa da Nafarroako Lan Baldintzen eta Osasunaren gaineko III. Inkesta, 2016an argitaratua, Nafarroan lanean ari den populazioak izan uste duen osasun egoera ezagutzera ematen duena, maizen aipatzen diren laneko esposizioen karakterizazioa egiten baitu, besteak beste, arrisku higienikoen ondoriozkoena.

Hartara:

- Langileen %15,8k zarata maila handia edo oso handia jasaten du bere lanpostuan.
- Langileen %8,9k dio bibrazioen eraginpean dagoela esku-besoetan eta %4,3k, berriz, gorputz osoan.
- Langileen %32,7k dio eragile kimikoen eraginpean dagoela, bai arnasaren bai azalaren bidetik.
- Eragile biologikoekiko esposizioari dagokionez, langileen %10,7k dio bere lantokian arrisku hori dagoela.

Nafarroan, 2015ean, eragile kimikoekiko esposizioari, substantzien arnasketari, larruazaleko eritasunei eta eragile kantzerigenoei lotuak izan ziren lanbide eritasunen agiri guztien %9,72.

Espanian, kalkuluen arabera jatorria lanean duten minbizien %0,1 baino gutxiagori ematen zaie lanbide eritasunen aitortza (Kogevinas, M. 2008ko Jardunaldia. LSHIN). Nafarroan, 2015ean, 3 kasu baizik ez ziren deklaratu. Zenbait autoreren iritziz, hamarkada batzuk lehenago gertatu arren, orain gaude amiantoaren esposizioen ondoriozko kalteen izurritearen gailurrean.

Azkenik, Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutu honen jarduketa desberdinen garapenak agerian utzi du Nafarroako enpresa batzuetan hutsune handiak daudela langileen osasunaren prebentzio eta babesaren kudeaketan arrisku higienikoei dagokienez.

Xede-populazioa

Eragile kantzerigeno, mutageno eta ugalketarako toxikoekiko esposizioa egoeraren azterketa ardaztuko da eragile horien presentzia handiena duten jarduera sektoreetan, industria kimikoa barne, LSHINaren Infocarquim baseko jakingarrien arabera.

III. NLBOIaren datuetan oinarriturik, jarduera ekonomikoko beste sektore batzuk hautatu ditugu, haietan esku hartuko baita; honako hauek:

- Oihangintza eta basogintza: zarata, bibrazioak eta konfort termiko eza.
- Nekazaritza jarduera: eragile kimikoak
- Produktu metalikoen fabrikazioa: larruazalean ondorioak uzten dituzten eragile kimikoak.



- Eraikuntza: eragile kimikoak.
- Arriskurik gabeko hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena, eta materialen bereizketa eta sailkapena: eragile biologikoak.

Helburu orokorrak

1. Eragile kimiko kantzerigeno, mutageno eta ugalketarako toxikoen eraginpean egoteko arriskuaren kudeaketa hobetzea Nafarroako enpresetan.
2. Amiantoaren Nafarroako mapa edukitzea.
3. Bestelako arrisku higienikoen kudeaketa hobetzea Nafarroako Lan Baldintzen eta Osasunaren gaineko III. Inkestaren arabera esposizio handiagoa izan uste duten jarduera ekonomikoetan.
4. Esposizio higienikoen ondoriozko lanbide eritasunen erregistroa hobetzea.

Helburu berariazkoak eta helmugak

	2017	2018	2019	2020
Lan baldintzak				
Ikustaldia jasotako enpresa kopurua handitzea arrisku higienikoekiko esposizioari loturiko aholkularitza kanpainetan, bereziki eragile kantzerigeno, mutageno eta ugalketarako toxikoei buruz	n ₀	20	60	90
Eragile kimiko kantzerigeno, mutageno eta ugalketarako toxikoen ordezkapena bultzatzea, azterlanean agertzen diren enpresetara lehen ikustaldia egin ondoan				
Arriskuen kudeaketa				
Eragile kimiko kantzerigeno, mutageno eta ugalketarako toxikoen eraginpean dauden langileen kopurua (%) murriztea egoerari buruzko azterlanean sartu diren enpresetan, eta orobat bestelako arrisku higienikoen eraginpean dauden langileei dagokienez, jarduera ekonomiko lehenetsietan	-			
Aholkularitza kanpainen ondotik, arriskuak metodologia berariazkoen bidez ebaluatzen eta arrisku higienikoen kudeaketa hobetzeko aldaketak planifikatzen dituzten enpresen ehunekoa handitzea	-			
Prestakuntza jarduerak (jardunaldiak, lantegiak eta bar) bermatzea eta jardunaldietan eta haien ebaluazioan parte hartzen dutenen kopurua handitzea	-			
Informazio sistema				
Azterketarako lehen ikustaldiaren ondotik eragile kimiko kantzerigeno, mutageno eta ugalketarako toxikoei esposizioa gutxitzeko bestelako jarduketak egiten dituzten enpresen ehunekoa handitzea, jarduketa horiek jasorik daudenean Kantzerigenoei buruzko 665/1997 Errege Dekretuan	0	%60	%75	%90
Amiantoak Nafarroan duen presentzia eta banaketa ezagutzea				
Arrisku higienikoak ebaluatzeko enpresetan erabiltzen diren metodologiaren gaineko datuak edukitzea	-			
Eragile kantzerigeno edo mutagenoen eraginpean dauden langileen erregistroa sortzea				



Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Arriskuen kudeaketa		
Gizarte eragileendako informazio kanpainak eta enpresetako prebentzio zerbitzu eta arduradunendako laguntza, substantzia kimiko arriskutsuenen (eragile kantzerigeno, mutageno eta ugalketarako toxikoak) ordezkapena, arriskuaren jatorrian aurreneurriak hartzea eta neurri horien eraginkortasunaren egiaztapena bultzatzeko	2017	LAAHA-PIU
Enpresetako prebentzioko arduradunendako, prebentzio zerbitzuendako eta langileen ordezkariendako prestakuntza, teknikan nahiz arauetan agertzen diren berritasunen gainean, arrisku higienikoen ebaluazioak eta haien berrikuspenak eta prebentzio jardueraren plangintza errazteko Laneko arriskuen prebentzioko gaiei buruzko jardunaldi teknikoak, jende guztiarendako irekiak	2018	LAAHA-PIU
Informazio sistemak		
Jatorria lanean duten minbizien kasuen azpierreregistroa aztertzea eta haren zuzenketa bultzatzea	2017-2019	LMLEA
Amiantoaren Nafarroako mapa egitea	2017-2019	LAAHA
Sentsibilizazioa		
Honako hauen gaineko aholkularitza kanpainak: <ul style="list-style-type: none"> • Arrisku fisikoak (zarata, bibrazioak eta konfort termiko eza) oihangintza sektorean • Azalean ondorioak uzten dituzten eragile kimikoak, produktu metalikoen fabrikazioan • Eragile kimikoak, eraikuntza sektorean • Eragile biologikoak, arriskurik gabeko hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapenean, eta materialen bereizketa eta sailkapenean 	2018 2018 2017 2018	LAAHA-PIU
Ikerketa		
Eragile kimiko kantzerigeno, mutageno eta ugalketarako toxikoekiko esposizioaren egoeraren azterketa, enpresen lagin adierazgarri batean, enpresetako prebentzio zerbitzuekin eta laneko arriskuen prebentzioaren arduradunekin elkarlanean Hasierako ikustaldia 2017an egiteko asmoa dago, eta bigarren ikustaldia, egiaztatzeko, 2018an	2017	LAAHA
Eragile kimikoekiko esposizioaren ondoriozko arriskuen gainean enpresetan egiten duten kudeaketaren azterketa	2019	LAAHA-PIU



Ebaluazioa

Adierazleak
Egoera azterketaren emaitzak: Eragile kimiko kantzerigeno, mutageno eta ugalketarako toxikoekiko esposizioari loturik ikustaldia hartu duten enpresen kopurua; azterketarako lehen ikustaldiaren ondotik eragile kimiko kantzerigeno, mutageno eta ugalketarako toxikoak ordezkatzeko dituzten enpresen ehunekoa, 665/1997 Errege Dekretuan biltzen diren bestelako jarduerak egiten dituzten enpresen ehunekoa, horien eraginpean dauden langileen murrizketa
Ikustaldia jasotako enpresen ehunekoa, arrisku higienikoekiko esposizioari loturiko aholkularitza kanpainetan
Aholkularitza kanpainen ondotik, arrisku higienikoen kudeaketa hobetzeko aldaketak planifikatzen dituzten enpresen ehunekoa
Programa honetan jasotzen diren jarduera ekonomikoetan arrisku higienikoen eraginpean dauden langileen kopurua txikitzea
Mota guztietako zenbat prebentzio zerbitzuren datuak ditugun arrisku higienikoak ebaluatzeko erabiltzen dituzten metodologiaren gainean
Metodologia berariazkoen bidez arriskuei buruz egindako ebaluazioen ehunekoa, ikustaldia jasotako enpresetan
Prestakuntza jardueren (jardunaldiak, lantegiak eta abar) eta haien parte-hartzaileen kopurua



4. ARRISKU ETA KALTE PSIKOSOZIALAK DETEKTATZEKO PROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Lan baldintzei eta osasunari buruzko inkesta guztietan, garbi agertzen da arrisku psikosozialak gorantz doazela eta lehenetsi beharreko jardun-eremua osatzen dutela. Hala, Lan Baldintzen eta Osasunaren III. Inkestan¹³ ageri denez, laneko beharkizun handiak eta indarkeriazko jokabideen eraginpean egotea, bi-biak dira arrisku langileendako, batez ere emakumeendako, eta biak hautematen dira laneko estresaren eragileekin loturiko lan arazo gisa.

Laneko konstruktuko psikosozialen eta osasunerako kalteen arteko erlazio-ereduek (Karasek et al. eta Siegrist et al.) aukera eman dute galde-sorta bereziak diseinatu eta balidatzeko, aitzinamendu handia ekarri dutenak antomenduzko faktoreen arriskuak ebaluatzerakoan. Soziologiaren teknika eta metodo kualitatiboek, berriz, posible egin dute harremanen faktore psikosozialak identifikatu eta ebaluatzea, laneko etsaitasunezko jokabideekin loturik gehienbat.

Hala ere, aitzinamendu horiek ez dute aldi bereko aplikaziorik ekarri enpresetan. Kataluniako azterlan berri baten arabera¹⁴ halako arriskuak ebaluatu dira enpresetako %22,5etan, eta hala egin eta neurri zuzentzaileak planifikatu direnean, enpresa haien erdietan baizik ez dira betearazi, hein batean bederen. Gainerako arriskuak enpresen %68tan ebaluatu dira, gutxi gorabehera, eta neurri zuzentzaileak aplikatu dira hala programatu dituzten enpresen %80tan baino gehiagotan.

Esanak esan, toki entitate publiko eta enpresa handi aunitzek izan badituzte etsaitasunezko jokabideen prebentziorako eta biktimen arretarako protokoloak. Protokolo horiek, hutsuneak dituzten arren, sumaturiko premia baten isla dira. Enpresa txiki eta ertainetan zailagoa da halako protokoloak prestatu eta aplikatzea. Gure ustez, lan osasuneko administrazio publikoak eginkizun handia izan dezake sostengu emanez kasuen ikerketarako, bitartekaritzarako, egoki denean, edo protokolo horiek osatzeko irizpideen gaineko aholkularitzarako.

Nafarroan, jatorria lanean izan dezaketen nahasmendu mentalen komunikazioari¹⁵, buruzko azterlan berariazko batek berretsi egin ditu inkestaren emaitzak: nahasmendu mentalen %17,5ek laneko jatorria izan zuen (1.000ko 7,2 langile urtean). Kasuen %70 etsaitasunezko jokabideen ondorio da (jazarpen morala, tratu txarra, erasoak...) eta %14,2, antolaketako faktoreek ekarria. Kasuen intzidentzia handiagoa da feminizaturiko jarduera ekonomikoetan, zerbitzuen sektorean eta kualifikazio apalagoko lanpostuetan.

Azterlan berberak dio prebentzio zerbitzuetako osasun arloko langileekin partekatu behar direla halako kalteei buruzko ikerketa-irizpideak, Osasun Zerbitzu Publikoko profesionalak langileen osasunaren Zaintza Epidemiologikoaren Programan jakinarazi behar dituztela holako kasuak eta sustatu beharra dagoela nahasmendu horiek lanbide eritasunen taulan sar daitezen edo lan istripuaren aitortza izan dezaten.

Xede-populazioa

Ondoko taulan ikus daiteke laneko arrisku psikosozialen ondoriozko nahasmendu mentalen tasa handienak zerbitzuen sektorean ageri direla eta, haren barnean, EJSNaren barneko jarduera ekonomikoen sail feminizatuetan eta maila apalagoko lanbide tituluetan.

Bestalde, talde horien barnean 25 langiletik beheitiko enpresak lehenetsiko dira.

13 2014ko datuen bilketa. http://centcms05/NR/rdonlyres/5156BEC5-6783-4F6E-9613-0C40352FE6B5/0/III_encuesta_salud_navegable.pdf

14 Gestió de la prevenció de riscos laborals a les empreses de Catalunya 2014 http://empresa.gencat.cat/web/.content/03_-_centre_de_documentacio/documents/01_-_publicacions/06_-_seguretat_i_salut_laboral/arxiu/INFORME_gestio_PRL_empreses_CAT_2004_2015.pdf

15 Artikulua: "Trastornos mentales comunes derivados del trabajo 2009-2012 y estudio de casos posteriores (2009-2014)" http://www.archivosdeprevencion.com/view_document.php?tpd=2&i=4989



Taula. Arrisku psikosozialen eraginpean egotearen ondoriozko nahasmendu mental arrunten intzidentzia handiena duten jarduera eta lanbideak. Nafarroa 2009-2012

EJSNeko jarduerak:	I.I.	Lanbideak
Administrazio publikoa, Defentsa	128,1	
Ostalaritza	98,6	Administrariak
Kultura, aisia	85,9	Jatetxeetako, merkataritzako, osasuneko/zaintzetako eta babeseko/segurtasuneko langileak
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	78,7	
Zerbitzu osagarriak	72,2	Oinarrizko lanbideak
Gizarte eta osasun zerbitzuak	59,8	

I.I.: Intzidentzien indizea x 10⁵ eraginpean daudenak

Sindikatuak proposaturik, lanbide talde hauek ere sartu dira

Garbiketa		
Industria		

NLBOI-Nafarroako Lan Baldintzen eta Osasunaren gaineko III. Inkestak esaten digu eraikuntza arloko langileen %33,6ri iruditzen zaiola gehiegizko lana egiten duela. Lanbideen araberrako azterketak, berriz, erakusten du esku-hartzeen xede-taldeak zabaldu beharra dagoela irakasleak eta zuzendaritzako langileak ere sartzeko, arrisku zehatz batzuetarako.

Helburu orokorrak

1. Arrisku psikosozialen kudeaketa hobetzea programa honen xede-populazioen enpresetan.
2. Arrisku psikosozialen eraginpean egotearen ondoriozko osasun kalteen detekzioa handitzea Osasun Sistema Publikoko Zaintza Epidemiologikoaren sisteman.

Helburu berariazko eta zehatzak

	2017	2018	2019	2020
<i>Lan baldintza</i>				
Programak barne harturiko enpresen ehunekoa zabaltzea, arrisku horien kudeaketarekin loturiko edozein ekintzatan	n_0	$n_0 + \%10$	$n_0 + \%15$	$n_0 + \%20$
<i>Arriskuen kudeaketa</i>				
Arrisku psikosozialen ebaluazioen ehunekoa handitzea (metodo parte-hartzaileen bidez egindakoak)	n_0	$n_0 \times 1,5$	$n_0 \times 2$	$n_0 \times 2,5$
Sustatzea langileen ordezkarien parte-hartzea etsaitasuneko jokabideak ikertzeko batzordeetan				
<i>Prebentzio sistema</i>				
Prebentzio zerbitzuen eta bertako profesionalen engaiamendua lortzea programa honetan parte hartzeko	-	20	40	60
NOPLOIk arlo psikosozialean duen eginkizuna zabaltzea, aholkularitza eta bitartekaritza eskainiz ebatzi gabeko gatazketan eta enpresen ikerketa batzordeetan parte hartuz jazarpen moral eta sexualeko auzietan.				



	2017	2018	2019	2020
Sustatzea indarkeriaren ondoriozko lan istripu (LI) larriak ikertzeko txostenak presta daitezen				
Prebentzioari begirako aholkularitza-prozedurak gaitzea arrisku psikosozialei heltzeko				
Handitzea NOPLOIren topagune, mintegi, ikastaro eta jardunaldi psikosozialetan parte hartzen dutenen kopurua				
Modu progresiboan handitzea programan parte hartzen duten profesionalen kopurua				
Sustatzea prestakuntza-saioetako partaideen balorazioa				
NOPLOIk prebentzio modalitate ezberdinei eskatzea kausa psikosoziala duten istripuen ikerketen emaitzak				
Informazio sistemak				
Handitzea lanaren ondorio direla susmatzen diren kasuak jakinarazten dituzten Osasun Sistema Publikoko osasun etxeen eta profesionalen ehunekoa				
Sentsibilizazioa				
Sendotzea LGSI-Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren akordioaren betetze-maila arrisku psikosozialei dagokienez				

Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Lan baldintza		
Sustapen-jarduketak modu eraginkorrean bete dadin alderdi psikosozialekin loturiko laneko arriskuei aitzintzeko araudia, batez ere enpresa txiki eta ertainetan	2016/2017	LAPA
Sustatzea prebentzio eta jarduketa prozedurak zorroztasun metodologikoaz eta partaidetzaz egin daitezen, aurre egin ahal izateko lan antolaketako arazoei eta indarkeriazko jokabideei, baita laneko jazarpen ezberdinei ere, sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena barne.	2017	LAPA
Arriskuen kudeaketa		
Prebentzio eragileen prestakuntza, lan antolaketaren ondoriozko arriskuei eta etsaitasuneko harremanen jokabideen ondoriozkoei aurre egiteko eta haiek saihesteko	2017-2019	LAPA
Prebentzio sistema		
Etsaitasuneko jokabideei aurre egiteko ikerketa eta esku-hartzea batzordeetan partaide aritzea, hala eskatzen duten enpresetan baldin eta LOZek ezarritako irizpideak betetzen badituzte	2017	LAPA
Jardunbide egokiei loturiko sariketarak antolatzea bi urtez behin; Jardunbide Egokiei buruzko Jardunaldia: esperientzia finalisten aurkezpena	2019	LAPA
Sakontzea lan istripuen eta lanbide eritasunen kausa psikosozialen azterketan	2017	LAPA-LMLEA



	Egutegia	Unitate arduraduna
Prebentzio teknikariendako prestakuntza-ildo berariazkoak mantentzea, bereziki arrisku psikosozialak ebaluatzeko metodologietan	2018	LAPA-UFI
Informazio sistemak		
LGSirekin elkarlanean aritzea Arrisku Psikosozialen Kanpainan, ikuskatze-jarduketan urteko plangintzan sartua baitago	2016	LAPA-LMLEA
Saioak egokitzea oinarrizko osasun laguntzako sendagileekin laneko arrisku psikosozialen eraginpean egotearen ondoriozko kalteak jakinarazteko sistemaz jarduteko.	2017-2019	LMLEA
Sustatzea berdintasun-agenteen eta prebentzio zerbitzuetako teknikarien arteko elkarlana sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloak egiteko, baita jardunaldia eta barneko prestakuntza-jarduera egiteko ere.	2017	LAPA-UFI
Sentsibilizazioa		
Agiri dibulgatiboak prestatzea (triptikoak, gida elektronikoa...) zabaltzeko zein diren kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak laneko antolaketak ekarritako arriskuen prebentziorako eta haien aurrean jarduteko prozeduretan	2016	LAPA-UFI
Sentsibilizazio eta dibulgazio ekintzak egitea, bereziki arrisku psikosozialak kudeatzeko jardunbide egokiak identifikatuz eta zabalduz	Urtekoa	LAPA-UFI
Atari berariazko bat sartzera webgunean jardunbide egokiei buruz: <ul style="list-style-type: none"> Nafarroako enpresak eta beste entitate batzuk gonbidatzea (adib. prebentzio zerbitzuak) beren adibideak aurkeztu eta sartzera 	2018	LAPA-UFI
Ikerketa		
Aztertzea egokia ote den Berdintasunari eta Laneko arriskuen Prebentzioari buruzko Jardunaldi bat antolatzea.	2018	LAPA-NBI
Barneko prestakuntza-jarduera proposatzea sexu-jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko protokoloari buruz	2017	LAPA-UFI

Ebaluazioa

Adierazleak
Programak barne harturiko enpresen ehunekoa, arrisku horien kudeaketarekin loturiko edozein ekintzatan
Zenbat prebentzio zerbitzuek eta profesionalak hartu duten parte programa psikosozial honetako alderdietan (esposizioa ikertzeko batzordeak, kalteen jatorriaren jakinarazpena eta ikerketa...)
Ustez jatorri psikosoziala duten kalteen kasuak jakinarazi dituzten osasun etxeen ehunekoa eta oinarrizko osasun laguntzako sendagileen ehunekoa
Zer enpresa ikuskatu dituen LGSik arrisku psikosozialak direla eta
Zenbat bitartekaritza-prozesutan eta zenbat ikerketa-batzordetan parte hartu den etsaitasuneko jokabideak tarteko
Zenbat aholkularitza-lan egin diren etsaitasuneko jokabideen arloan
Zenbat jende hartu duen parte arrisku eta kalte psikosozialei eta haien ebaluazioari buruz NOPLOIk antolaturiko topagune, mintegi, ikastaro eta jardueretan
Zenbat eskaera egin diren indarkeriaren ondoriozko LI larriak ikertzeko txostenak egiteko, NOPLOIk prebentzio modalitate ezberdinei galdaturik



5. TALDE KALTEBERETAN ARRISKUEKIKO ESPOSIZIOA GUTXITZEKO PROGRAMA

Osasun publikoaren ikuspuntutik, talde kaltebera esaten zaie arrisku faktore gehiago metatzen dutenei, arrisku jakin batzuekiko sentiberago direnei eta/edo haien aurrean babesteko aukera gutxiago dutenei.

Ikuspegi horietatik bereziki kalteberak direlako, honako azpiprograma hauek sartzen dira programa honetan:

- Langile bereziki sentiberen azpiprograma, prebentzioko araudiaren definizioaren arabera.
- Amatasun-egoeran lan arriskuei aitzintzeko azpiprograma
- Lanean ari diren adinekoendako azpiprograma
- Langile autonomoendako azpiprograma

LANGILE BEREZIKI SENTIBEREN AZPIPROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Langile talde asko daude, beren ezaugarriak, osasun egoera edo egoera biologikoa dela-eta lan baldintza berariazkoak behar dituztenak laneko arriskuek beraiengan duten eragina ekiditeko edo arrisku horien maila mugatzeko, lanaren ondoriozko kalteak izan ez ditzen.

Sentiberatasun bereziko egoera hori enplegua baino lehenagokoa edo ondotik gertatua izan daiteke, iraunkorra edo iragankorra.

Laneko Arriskuen Prebentziolari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak enpresariari exijitzen dio sentiberatasun bereziko egoeran dauden langileendako arriskuak saihestea edo kontrolatzea bere prebentzio plangintzan.

Arau horretan aipatzen dira arriskuen kudeaketako zein alderdi hartu behar diren kontuan egoera horretan, hots, arriskuen ebaluazioa eta prebentziorako eta babeserako behar diren neurrien ezarpena. 25. artikuluan esaten da saihestuko dela halako langileak kokatzea berendako edo beste batzuekiko arriskua dakarten postuetan. Jarraian adierazten da kontuan hartu beharreko egoera iragankorra edo iraunkorra izan daitekeela.

Arazoa, ordea, gaiari buruzko literatura aztertuta dator, zeren ondorioztatu egiten baita ez dagoela ia metodo berariazkorik talde horrendako arriskuak ebaluatzeko, salbu eta amatasun-egoeran¹⁶, eta lesio ergonomiko zenbait izan dituzten pertsonendako balio duten metodo berariazkoak, gaitasunen eta beharkizunen arteko lotura baloratzen dituztenak. Gainerako taldeak ikaragarri pluralak dira. Adineko langileak, baliaezintasunik gabeko sekuela iraunkorrek ekarri dizkieten patologiak izan dituztenak, desgaitasun kognitiboa, zentzumenezkoa edo fisikoa duten pertsonak (orain aniztasun funtzionala duten pertsonak esaten zaie), aldi baterako lesioak dituzten langileak, eragile kimiko jakin batzuekiko sentikor bihurtu direnak, etab.

Arriskua kudeatzeko faseei jarraituz, gure ustez langileen osasuna zaintzeak berebiziko garrantzia du langile horiek identifikatzerakoan eta zer arriskuren eraginpean jarri behar ez diren zehazterakoan.

Arriskuen ebaluazioari dagokionez, batzuetan zaila da ezartzea zein diren maila onargarriak talde berezi horiek eraginpean jartzeari dagokionez. Kasu jakin batzuei buruzko hutsune hori konpondu

16 Directrices para la evaluación de riesgos y protección de la maternidad en el trabajo. INSHT Madrid



da eraginpean jartzeko maila batzuk adostuz eragile sozialen, administrazioaren eta teknikarien artean.

Bestalde, beste erronka bat etorri ohi da aldi batean desgaitasun egoeran egon eta gero langileak bere lanpostura itzuli behar duenean. Espainiako Gizarte Segurantzaren araudiak ezartzen du gaitasunen %100ean itzuli behar dela langilea lanera, lanari inolako mugarik gabe aurre egiteko modua duenean. Beste herrialde batzuetako esperientziek erakusten dute nolako onurak ekarriko lituzkeen lanera modu progresiboan itzuli ahal izatea.

Xede-populazioa

- Aniztasun funtzionala duten pertsonak (desgaituak).
- Amatasun-egoeran dauden emakumeak.
- 55 urtetik gorako langileak.
- Laneko baja luzeagoak dituzten langileak irizpide klinikoen erabera.

Helburu orokorrak

1. Sustatzea lan baldintza egoki eta berariazkoak lan arriskuekiko sentiberatasun berezia duten taldeetako langileendako.
2. Pertsonen modu egokian berriro laneratzeko aukera ematea laneko baja baten ondoren.

Helburu berariazko eta zehatzak

	2017	2018	2019	2020
Lan baldintza				
Sostengu ematea hitzarmen kolektiboetan edo bestelako akordioetan ezar dadin 50 urtetik goiti borondatezkoa izan dadin gaueko txandak egitea jarduera ekonomiko eta enpresetan	n_0	$n_0 + \%10$	$n_0 + \%20$	$n_0 + \%30$
Enplegurako zentro berezietan (EZB) egin beharreko jarduketak txertatzea programa honetan	0	%10	%30	%40
Prebentzio sistema				
Prestakuntza-jarduerak egitea talde horietako teknikari eta prebentzioko ordezkariendako eta partaideen kopurua handituz joatea				
Sentsibilizazioa				
Talde kalteberen langile eta enpresen jakintza eta sentsibilizazioa hobetzea LOZ-Lan Osasuneko Zerbitzuari laneko arriskuen kudeaketaren arloan dagozkion alderdi berariazkoak buruz eta, zehazki, EZBetan.	n_0	$n_0 + \%10$	$n_0 + \%20$	$n_0 + \%40$

Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Lan baldintzak		
Sustatzea hitzarmen kolektiboetan txerta daitezkeen gaueko txanda ez egiteko borondatezko salbuespen-irizpideak adineko langileendako	2017	LOZ
Arriskuen kudeaketa		
Bultzatzea, talde jakin batzuen edo egoera kalteberagoan daudenen arriskuen prebentzioa, edo arrisku berezien eraginpean daudenena	iraunkorra	LAPA-LMLEA



	Egutegia	Unitate arduraduna
Sentiberatasun bereziko taldeak enplegatzen dituzten enpresendako aholkularitza, kasuan kasuko enpresako prebentzio zerbitzuekin elkarlanean	2017	LAPA
<i>Prebentzio sistema</i>		
Kanpaina, Eskubide Sozialesko Departamentuarekin eta LGSIarekin lankidetzan desgaituak kontratatzeari begira eta lanpostuak norberaren ezaugarriei egokitzeari buruz, * EZBetan bereziki	2018/2019	LAPA-LMLEA-LGSI-Eskubide Sozialeko Dep.
<i>Sentsibilizazioa</i>		
Arriskuak kudeatzeko prozedurak eta protokoloak prestatzea bereziki sentiberak diren hainbat talderendako.: <ul style="list-style-type: none"> • Adinekoak • Haurdunak • Aniztasun funtzionala duten pertsonak • Aldi baterako ezintasunaren ondoko egoerak 	2017	LOZ
Kanpaina, lanpostuen egokitzapena errazteko bereziki sentiberak diren langileendako eta gai izanik mugak dituzten langileendako	2018	LAPA-LMLEA
Kanpainak laneko arriskuei aurrea hartzeko materialak zabaldu eta dibulgatzeko, talde berariazko batzuei zuzendutakoak	2017/2018	LAPA-LMLEA
<i>Ikerketa</i>		
Osatzea arrisku ergonomikoak ebaluatzeko irizpideak pertsona bereziki sentiberei dagokienez	2017	LAPA-LMLEA
Ikerlan pilotua, sentiberatasun bereziko egoera iragankorreen dauden pertsonak lanpostura hein batean itzultzeari begira	2017	SVCIM

Ebaluazioa

Adierazleak
Kanpainaren informazioa jaso duten langile eta enpresen ehunekoak
Zenbat prestakuntza-saio egin diren, zenbat profesional eta ordezkari bertaratu diren prestakuntzako jardunaldi eta ekintzetara programa honen eta haren ebaluazioaren baitan
Arriskuak kudeatzeko zenbat irizpide berariazko osatu eta/edo zabaldu dituen NOPLOIk populazio horiendako
Zenbat hitzarmenetan, eta zenbat langile ukiturik, ezarri den borondatezko irizpidea gaueko txandak egiteko
Zenbat lantalde berariazko eratu den programaren ondorioz, talde-motaren arabera sailkatuak



AMATASUN-EGOERAN LAN ARRISKUEI AITZINTZEKO AZPIPROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Nafarroan, 2016ko bigarren hiruhilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuen arabera, 138.800 emakumek osatzen dute biztanleria aktibo femeninoa eta horietarik %70 egon daitezke ugaltzeko adinean. Lan mota jakin batzuen eta generoaren arteko gaurko lotura (sexu-banaketa horizontala) argi gelditzen da guztiz feminizaturiko jarduerak daudela ikusita. Adibidez, txikizkako merkataritzan edo hezkuntzan emakumezkoak dira langileen %65 edo hor ditugu, bestetik gizarte zerbitzuen eta osasunaren arloko jarduerak, non emakumezkoak baitira %78.

Datu horiek erakusten dute badela ugaltzeko adinean dauden emakumeen ehuneko handi bat lanean, izan jarduera feminizatueta edo ez, amatasunerako kaltegarriak izan daitezkeen mota askotako arrisku-faktoreen eraginpean egon daitekeena: fisikoak, kimikoak, biologikoak, ergonomikoak edo psikosozialak.

Lanean amatasuna babesteko eskubidea jasota dago egungo legedian eta haren helburuen artean gailentzen da osasunari kalte egiten ahal dioten laneko arriskuen eragina saihestu edo minimizatzea, bai haurdun dagoen langileengan bai umekian, hala nola haurdunaren hezur eta giharren nahasmenduak, berezko abortua, preeklampsia, pisu gutxi jaiotzean, efektu genetiko hereditarioak, sortzetiko malformazioa, ama-esnearen kopuruaren eta/edo kalitatearen galera, etab.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 26. artikulua, amatasuna babestearen gaineak, finkatzen du haurdun, erditu berri eta bularra ematen ari diren emakumeen babesaren arriskua ekar dezaketen egoerei begira.

Aipatu legeak ezartzen du enpresariak arriskuak identifikatu eta kentzeko, edo ebaluatu eta kontrolatzeko betebeharra duela prebentzioaren plangintzaren bitartez. Jarduera horiek ez badute bermatzen amatasun egoeran dagoen langilearendako arriskurik ez dagoela, enpresariak langile horiek arriskuen eraginpean ez jartzeko egokitzapenak egin beharko ditu bai lan baldintzetan bai lan ordutegian.

Lanpostuaren egokitzapena ezinezkoa bada edo amatasunaren babesaren ziurtatzeko behar bestekoa ez bada, langileak beste lanpostu edo eginkizun ezberdin bat beteko du, bere egoerarekin bateragarria dena. Horiek horrela, enpresariak, langileen ordezkariari alde aurreko kontsulta egin ondoren, halako arriskurik ez dakarten lanpostuen zerrenda osatu behar du.

Azkenik, enpresan arriskurik gabeko posturik ez dagoen kasuetarako, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak xedatzen du langilea kontratuaren aldi baterako etenaldira igaro litekeela amatasunarendako arriskuagatik eta prestazio hori Gizarte Segurantzaren entitate laguntzaileek kudeatuko luketela.

NOPLOI-Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak alor honetan egin dituen jarduketak ezberdinen garapenak (langile haurdunen kasu zehatzen azterketa, amatasunaren babesaren kudeaketa egiaztatzeko enpresei egindako ikustaldiak edo laneko ikuskatzailetzaren lankidetzaren generoaren arloko kanpainetan) ongi erakutsi du Nafarroako enpresek huts garbiak dauzkatela Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 26. artikulua betetzeaz den bezain-batean:

- Sarri askotan, langileek ez dakite amatasuna babesteko eskubidea dutela lanean ezta zein den ere amatasun egoeran jarraitu beharreko prozedura.
- Hauteman da enpresek ez dutela prozedurarik langileak haurdun dagoela edo bularra ematen ari dela esaten duenetik aurrera jarraitu beharreko jarduketan segida ezartzeko.



- Oro har, ebaluazioak arriskuen identifikazio zerrenda hutsak dira edo arriskuak irizpide orokorren bidez baloratzen dira, amatasunerako arriskuen prebentziorako irizpide berariazko erabili beharrean.
- Ez da modu sistematikoan prestatzen amatasunerako arriskurik ez dakarten lanpostuen zerrendarik.
- Oro har, ez da berariazko neurririk proposatzen amatasunerako arriskua dakarten postuak egokitzearen.
- Laneko halako arriskuen eraginpeko postuetarako, hainbat prebentzio jarduketa proposatzen dira, baina ez dute bermatzen amatasunerako inongo arriskurik ez egotea.
- Halakoetan kontratuaren aldi baterako etenaldia eskatzera jotzen da arriskua kontrolatzeko, lanaren baldintzak edo ordutegia egokitu beharrean.

Esku-hartzearen jarduketak, erantzuleak eta epeak zehaztu gabe daudenez, ohikoa da amatasun egoeran dagoen langilea babesgabe egotea zer egin, nork egin eta nola egin erabakitzen den bitartean, hots erabaki arte ea laneko baldintzak egokituko diren, langilea postuz aldatuko den edo kontratuaren aldi baterako etenaldia eskatuko den.

Nafar enpresetan amatasunaren babesaren kudeaketa hobetzeko beharrak ekarri du programa hau, langilearen eta haren umearen osasuna segurtatzearen bai haurdunaldian bai erditu berritan eta baita edoskialdi naturalak iraun bitartean ere.

Xede-populazioa

Ugaltzeko adinean dauden Nafarroako langile emakumezkoak.

Sindikatuaren proposamenez, honako hauek sartu dira berariaz:

- Kontserba-fabrikak, etxeko laguntza, egoitza arreta-lanak, garbiketa-jarduerak, ile-apaindegiak, haur eskolak eta osasun erakundeak.

Helburu orokorrak

1. Sustatzea, Nafarroako enpresetan, prozedurak osatu eta prestatu daitezkeen amatasunerako lan arriskua behar bezala kudeatzeko Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean ezarritakoaren arabera.
2. Sustatzea laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuek LSHINaren "Arriskuak ebaluatzeko eta amatasuna lanean babesteko jarraibideak" erabil ditzaten Nafarroan.

Helburu berariazko eta zehatzak

	2017	2018	2019	2020
Arriskuen kudeaketa				
<i>Bultzatzea Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren (GSIN) eta Gizarte Segurantzari laguntza ematen dioten mutuen arteko akordioa, LSHINaren jarraibideak erabil daitezkeen amatasunerako lan arriskuaren ebaluazioan</i>				
Prebentzio sistema				
Amatasunerako lan arriskuei buruzko prestakuntza ematea bai sindikatuetakoa lan osasunaren kabineteko teknikariei bai enpresetako prebentzioko ordezkariak				
Prestakuntza antolatzea prebentzio zerbitzuetako arduradunekin amatasunaren babeserako jarraitu beharreko prozedurari buruz				



	2017	2018	2019	2020
Handitzea prebentzio zerbitzuetako teknikariek eta osasun langileek arriskuaren berariazko ebaluazioari buruz duten prestakuntza amatasun-egoerari dagokienean				
Informazio sistemak				
Ezagutzea 50 langiletik goiti dituzten Nafarroako enpresen zer ehunekok aplikatzen dituen amatasunerako lan arriskuen kudeaketarako prozedurak, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean ezarritakoarekin bat.	0	%30	%50	%60
Bultzatzea enpresetan identifikatu eta argitaratu daitezzen zein diren haurdunaldirako lan arriskua dakarten/ez dakarten lanpostuak				
Sentsibilizazioa				
Ezagutzea zein prebentzio zerbitzutan eta enpresatan egiten den amatasunerako arriskuen ebaluazio gehigarria LSHINek ezarritako jarraibideen arabera	0	%30	%50	%60
Amatasuna babesteko prozedura azaltzeko triptikoak prestatzea eta Oinarrizko Osasun Laguntzako zentroetako eta Sexu- eta Ugalketa-osasunaren Arretarako Zentroetako erabiltzaileen artean banatzea				
Programa honetako edukiak sartzea Oinarrizko Osasun Laguntzako lantaldeetako eta Sexu- eta Ugalketa-osasunaren Arretarako Zentroetako profesionalendako irakaskuntza-saioretan				

Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Lan baldintzak		
Zaintza eta kontrol kanpaina ezartzea amatasun-egoerarako enpresetan egin beharreko arriskuen ebaluazio berariazkoen gainean, feminizatuen dauden sektoreetako enpresa-sorta batean, enpresaren tamainaren arabera	2017	LAPA
Kanpainaren eraginkortasunari buruzko ondoko egiaztapena	2018	LAPA
Arriskuen kudeaketa		
Lantalde bat eratzea adosteko zein diren amatasun-egoerako arriskuaren prestaziorako aplikatu beharreko irizpideak, LSHINek ezarritakoak, honako hauek osaturik: Lan Osasunaren Zerbitzuko laneko sendagile eta teknikariak, GSIN-Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko sendagile ikuskatzaileak eta Gizarte Segurantzari laguntza ematen dioten mutuetako osasun profesionalak	2017	SVCIM
Prebentzio sistema		
Lankidetzaren Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileekin amatasun-egoera babesteko genero-kanpainetan	Urtekoa	LOZ
Prestakuntza-jardueretarako plan bat osatzea lan arriskuen aurrean amatasun-egoerak babesten direla bermatzeko, inplikaturiko profesionalei begira (SUOAZ, Oinarrizko Osasun Laguntzako lantaldeetako familia-medikuak eta gizarte langileak, sindikatu etako kabinetetako eta prebentzio zerbitzuetako teknikariak eta osasun langileak)	2017	LOZ
Aholkularitzako eta sentsibilizazioko jarduerak egitea enpresetan amatasuna babesteko prozedurari dagokionez, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 26. artikulua arabera	2018	LAPA



	Egutegia	Unitate arduraduna
Bilera Nafarroako lan arriskuen prebentzioko zerbitzuetako arduradunekin, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko legean amatasuna babesteko aurreikusitako prozeduraz aritzeko	2017	GT
Talde tekniko bat osatzea Lan Osasunaren Zerbitzuan, sostengu eta aholkularitza emanen diena amatasun-egoerarako arriskuen ebaluazio berariazkoaren arloan hala eskatzen duten prebentzio zerbitzuetako teknikariei, LSHINeko jarraibideen arabera	2017	SVCIM
Sentsibilizazioa		
Argibide-triptikoak eta dibulgaziokoak osatzea amatasuna eta edoskitze naturala lanean babesteari buruz, ugaltzeko adinean dauden emakumeei zuzenduak, SUOAZetako itxaron-geletarako eta Osasun Etxeetako kontsultetarako	2017	LOZ
Aurreko puntuan aipaturiko triptikoa sartzea Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren webgunean	2017	PIU
Dibulgazioko triptiko eta kartel informatiboak osatzea eta zabaltzea Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 26. artikuluan Amatasunaren eta Edoskitze Naturalaren laneko babesaz ezarritakoari buruz, Nafarroako enpresei zuzendurik	2017	PIU
Ikerketa		
Berrikustea "Lehentasunezko eta premiazko jarduketa-prozedura amatasun-egoerarako arriskua ekar dezaketen kasuen arretarako", NOPLOIko Lan Osasunaren Zerbitzuak prestatuak	2017	LOZ

Ebaluazioa

Adierazleak
Nafarroako enpresen zer ehunekok aplikatzen dituen laneko arriskuen kudeaketarako prozedurak amatasunerako, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean LAPLean ezarritakoarekin bat
Oinarrizko Osasun Laguntzako zentroen eta SUOAZen zer ehunekok banatzen dizkien prestatuak triptikoak bezeroei
Zenbat partaide dauden sindikatueta lan osasunaren Kabineteko teknikariei eta enpresetako prebentzioko ordezkariak emandako irakaskuntza-saioetan
Prebentzio zerbitzuen arduradunen zer ehuneko joaten den amatasuna babesteko jarraitu beharreko prozedurari buruzko bileretara
Prebentzio zerbitzuen zer portzentajek egiten duen amatasunerako arriskuen ebaluazio berariazkoa enpresetan LSHINek ezarritako jarraibideen arabera
Zenbat prebentzio zerbitzuek egiten duen amatasun-egoerarako arriskuen ebaluazio berariazkoa, LSHINen jarraibideen agirian ezarritako irizpideen arabera, programaren hasieran, eta handik urtebetera eta handik bi urtera.
Zenbat irakaskuntza-saio egiten diren Oinarrizko Osasun Laguntzako eta SUOAZetako lantaldeetako profesionalendako
Zenbat bilera egin diren Lan Osasunaren Zerbitzuko teknikarien eta GSINeko eta Gizarte Segurantzari laguntza ematen dioten mutuetako medikuen artean
Prebentzio Zerbitzuetako zenbat teknikari eta osasun langile joaten diren amatasun-egoerarako Arriskuen Ebaluazio Berariazkoari buruzko prestakuntza-jardueretara (baita ehuneko ere)



LANAREN ETA ADINEKOEN AZPIPROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Europar zahartu egin da populazio aktiboa. Laneko segurtasuna eta osasuna erabakigarriak dira lan bitartea hobe baten bitartez bermatzeko zahartze aktiboa. Beharrezkoa da langile talde honen ezaugarriak aintzat hartzea bai prebentzio arloko alderdiei ekiterakoan bai osasun arlokoak aztertzerakoan, esate baterako, osasunaren zaintza eta aldi baterako ezintasuna, edo osasun publikoaren arloko alderdiak, hala nola osasunaren sustapena.

EB-27an populazio aktiboari buruz dauden aurreikuspenek diote %16,2 eginen duela gora 55 urtetik 64ra bitarteko adin-tarteak 2010etik 2030era (9,9 milioi)¹⁷. Adineko langileak populazio aktiboaren %30 edo gehiago izanen dira, nahiz eta adin-tarte horretako langileen erdiek baino gehiago uzten duten lana erretiro-adina iritsi baino lehen.

Nafarroan, 2006an 55 urtetik 64ra bitarteko populazio aktiboa langileen %13,2 zen ($z=34.751$) eta 2016an, berriz, %18,1 ($z=47.408$). Fenomeno hori, bestalde, feminizatu egin da. 2006an adin-tarte horretako soldatapeko emakumeak langile guztien %4,14 ziren eta gaur egun, ordea, %7,81; adin horretako gizonen pisua, berriz, ehunekotan %9,1etik %10,2ra igaro da.

Pertsona aseguratutako aktiboaren ehunekoen bilakaera adin-tartearen arabera Nafarroan. 2006-16

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
16tik 24 urtera bitarte	%7,12	%6,89	%6,66	%5,43	%4,95	%4,59	%4,44	%4,12	%4,29	%5,74	%4,62
25etik 34 urtera bitarte	%28,83	%28,17	%27,46	%26,25	%25,17	%24,07	%22,75	%21,63	%20,72	%20,35	%18,91
35etik 44 urtera bitarte	%28,45	%28,69	%28,97	%29,55	%30,24	%30,77	%30,98	%31,32	%31,20	%30,90	%30,36
45etik 54 urtera bitarte	%22,15	%22,47	%22,98	%24,14	%24,76	%25,32	%26,00	%26,68	%27,19	%27,37	%28,00
55 urtetik 64 urtera edo gehiago	%13,25	%13,55	%13,77	%14,55	%14,81	%15,18	%15,78	%16,20	%16,56	%15,60	%18,06
Aseguratu aktiboaren kopurua, guztira	262.233	271.181	276.783	264.636	257.611	255.981	253.411	249.210	251.534	264.870	262.450

Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2014-2020ko Estrategia Europarraren helburua da 20tik 64ra urte bitarteko populazioaren enplegu-tasa %75etara handitzea. Horretarako, Europako herritarrek urte gehiago egin beharko dute lan².

Adineko langileen artean, arreta-maila eta erreflexuak murriztu ohi dira eta horrek lanaldiaren iraupena mugatu beharra ekartzen du, baita gaueko lana nahiz txandakakoa saihestu beharra ere. Era berean, lan denboraren gainean jarduteaz gain, bestelako neurriak ere hartu beharra dago lanaren edukiaren gainean jarduteko. Aurrekoarekin batera, kontuan hartu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat osasuna da, izan ere, 55 urteko langileek eta zaharragoek beste adin-tarte batzuetako gainerako langileek baino osasun egoera makurragoa dutela uste dute. Nafarroako lan baldintzen eta osasunaren gaineko 2016ko III. inkestan (2014ko landa-lana), adin-tarte horretako langileen %26k adierazi du bere osasun egoera hala moduzkoa, txarra edo oso txarra dela.

Hezur eta giharretako arazoak eta arazo mentalak dira adin horietako osasun arazo nagusiak. Gaitasun fisiko txikiagoa arazo bihurtzen da batez ere lan fisikoko karga handia duten enpleguetan. Erretiro aurreratuen eta laneko ezintasunaren arriskuei aitzintzeko, 50etik 64 urtera bitarteko langileen %30ek presazko doikuntzak behar ditu lanean beren osasun arazoaren ondorioz. Egindako azterlanek erakusten dute ezen, laneko errendimenduaren neurketan, laneko esperientziak berdindu egiten duela oinarritzko prozesu kognitibo batzuen gainbehera, hala nola oroimenaren funtzioena eta gaitasun psikomotorrena.

Erretiro-adinera arte edo are ondotik ere erakundean lanean segitzeko erabakiaren atzean faktore aunitz daude: jasotako begirunea, enplegatzailearenganako konfiantza, gainbegiratzailen sostengua eta atzera informazioa, tratu bidezkoa eta egokitzapen ergonomikoa. Horrek guztiak erabakiko du

¹⁷ Ilmarinen J. Promoción del envejecimiento activo en el trabajo. EU-Osha 2012.

<https://osha.europa.eu/es/themes/osh-management-context-ageing-workforce>



norainokoa den lanarekiko konpromisoa, eta konpromiso horrek ekartzen ahal du langilearen zahartze aktiboa.

2016-2017 urteetan helduko diegu adineko langileen arloa. 2018an adin-tarte gazteak izanen dira azpiprograma honen ardatza, laneko ezegonkortasuna eta behin-behinekotasuna izanik adin horien ezaugarri nagusiak. Istripuak izateko arrisku handiagoa dute beste adin-tarteek baino.

Xede-populazioa

Lan jarduera nekezenetan diharduten 50 urtetik goitiko pertsonak, hau da, garraioan, garbiketan, eraikuntzan, mendekotasuna dutenen zaintzan, nekazaritzan edo kualifikazio apalagoko jardueretan ari direnak.

Helburu orokorrak

1. Zahartze osasungarria (aktiboa) sustatzea lanean.
2. Langileek beren lan gaitasunari eustea erretiroa hartzeko adinera arte eta lanari ez uztea garaia baino lehen.
3. Adin tarte guztietako lan baldintzak hobetzea eta batez ere 50 urtetik goitiko langileenak.

Helburu berariazko eta zehatzak

	2017	2018	2019	2020
Lan baldintzak				
Klausulak sustatzea bai hitzarmen bai bestelako akordioetan 50 urtetik goitiko langileek gaueko txanda egin ez dezaten	n_0	$n_0 + \%10$	$n_0 + \%20$	$n_0 + \%30$
Bultzatzea beren osasun egoera hala moduzkoa edo txarra dela uste duten adineko langile aktiboaren ehunekoa txikitu dadin				
Arriskuen kudeaketa				
Sustatzea hezur eta giltzaduren ondoriozko bajen batez besteko intzidentzia murrizteko jarduketak 55-65 adin-tarteko langileen artean				
Prebentzio sistema				
Sustatzea prebentzio zerbitzuetako osasunaren zaintzaren barnean galdera bat sar dadila nork bere osasun egoera orokorraz uste duenari buruz, modu erantsian aztertze eta jarraipen diakronikoa egiteko gero.	n_0	$n_0 + \%10$	$n_0 + \%30$	$n_0 + \%50$
Jarduketak egitea hezur eta giltzaduren ondoriozko bajen batez besteko intzidentzia murrizteko 55-65 adin-tarteko langileen artean				
Lanari eta zahartze aktiboari buruzko jardunaldi bat egitea ordezkariendako eta prebentzioko teknikari eta sendagileendako				
Informazio sistemak				
Errolda egitea jakiteko zer enpresak bideratzen dituen 50 urtetik goitiko langileendako programa edo neurri berariazkoak, laneko arriskuen prebentzioari begira				
Sentsibilizazioa				
Enpresetan zabaltzea zahartze aktiboari buruzko kanpaina europarraren materialak				
Ikerketa				
Sustatzea ikerlan pilotu bat abiaraztea baja luze baten ondotik modu progresiboan atzera laneratzeari buruz				



Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Lan baldintzak		
Sustatzea borondatezkoa izan dadin 50 urtetik goitiko langileendako gaueko txandak egitea ala ez	2017	LOZ
Arriskuen kudeaketa		
Sustatzea arriskuen ebaluazioetan adinaren aldaera sar dadin (aldaera deskriptibo hutsa izan beharrean)	Iraunkorra	LAPA
Programa bat bideratzea baja luze baten ondotik modu progresiboan berriro laneratzeko	2017-2018	SVCIM-LMLEA
Prebentzio sistema		
Parte-hartzea Lanerako Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziaren "lan osasungarriak" izeneko kanpaina europarretan	2016-2017	PIU
Jardunaldiak egitea jardunbide egokien eredu berri emateko	2018	PIU-LMLEA
Prebentzioari eta lan adinari buruzko jardunaldia	2016-2017	LMLEA-PIU
Dokumentazio lagungarria prestatzea arriskuen ebaluazioetan adinaren aldaera sar dadin sustatzearen	2017	LAPA
Sentsibilizazioa		
Gida eta agiriak zabaltzea arrisku-faktoreen eraginpean egotearen ondorioetan adinak duen eraginari buruz	2016-2017	LAPA-LMLEA
Sustatzea adinduenen lan baldintza psikosozialak hobetu daitezkeen honako hauen bidez: aitortza, komunikazioa, informazioa...	2016-2017	LAPA
Ikerketa		
Nafarroan sakon aztertzea zer eragin duen adinaren aldaerak laneko ezbehar-tasan.	2018	LOZ

Ebaluazioa

Adierazleak
Txikitzea beren osasun egoera hala moduzkoa edo txarra dela uste duten adineko langile aktiboen ehunekoa
Hezur eta giltzaduren ondoriozko ezintasun iraunkorren kopurua urteko 65 urtetik beheitiko langileen artean
Hezur eta giltzaduren ondoriozko baje batez besteko intzidentzia 55-65 adin-tarteko langileen artean
Alta hartu arteko aldi baterako ezintasunaren batez besteko iraupena hezur eta giltzaduren ondorioz 55-65 adin-tarteko langileen artean
Zenbat enpresatara banatzen diren zahartze aktiboari buruzko kanpaina europarraren materialak
Zenbatak hartzen duten parte lanaren eta adinaren gaineko jardunaldietan
Zenbat enpresak bideratzen dituen 50 urtetik goitiko langileendako programa edo neurri berariazkoak laneko arriskuen prebentzioari begira
Zenbat enpresatan sartzen den osasunaren zaintzaren barnean galdera bat nork bere osasun egoera orokorraz uste duenari buruz, modu erantsian aztertze eta jarraipena egiteko gero
Zenbat hitzarmen eta enpresatan dagoen 50 urtetik goiti gaueko txandarik ez egiteko eskubidea eta zenbat langilek duten eskubide hori
Zenbat enpresak eta langilek duten prozeduraren bat baja luze baten ondoren pixkanaka laneratzeko berriz



LANGILE AUTONOMOENDAKO AZPIPROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Uztailaren 11ko 20/2007 Legearen bidez onetsitako Langile Autonomoen Estatutuak ezartzen du ezinbestekoa dela laneko istripuen eta lanbide eritasunen ondoriozko prestazioa ematea ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoei eta arrisku handieneko jardueretan sartutakoei. Arau hori aitzinamendu handia izan da talde horren laneko segurtasun eta osasun baldintzak ezagutzeko eta ezbehar-tasen aurrean lanean nola jokatzeko duen jakiteko.

Era berean, arau horren 8. artikulua laneko arriskuen prebentzioaren arloko alderdiak biltzen ditu eta administrazio publikoei berariaz eginkizun aktiboa esleitzen die langile autonomoaren arriskuen prebentzioari dagokionez. Legearen arabera, administrazio publikoak dira langile autonomoen segurtasun eta osasun baldintzen bermatzaileak, baita langile autonomoen erakundeendako informazio eta kontsulta bideak garatzeko ere, kolektibo horrengan eragina duten politiketan.

Langile Autonomoen Estatutuaren uztailaren 11ko 20/2007 Legea (LAEL) indarrean jarri zenetik bederatzi urte igaro arren, ez nazio mailan ez autonomia erkidegoetan, ez dakigu ba ote dagoen helburu horiei begirako jarduketak planifikatzeko programa edo jarduketa publikorik. Nafarroako Lan Osasuneko III. Planak (2016-2020) 2. ildo bat ezartzen du laneko arriskuei aitzintzeko araudia egiazki eta modu eraginkorrean bete dadin bultzatzeko, kalitate eta efizientzia estandar batzuetarantz aurrera egiteko. Ildo horren barnean, 2. helburuak ikusten zuen enpresa-jardueren koordinazioa hobetu beharra zegoela eta horretarako jarduerak egin behar zirela autonomoen taldeari laneko arriskuen prebentzioaren arloan aholkularitza publikoa eta laguntza teknikoa emateko, batez ere haien elkarrekin elkarlanean. Era berean, azpimarratzen zen laneko arriskuen prebentzioa hobetu beharra zegoela kolektibo jakin horretan, besteak beste.

Hala jasotzen du, orobat, Nafarroako Lan Autonomoaren 2017-2020ko Planak, arlo horretako ekintza berariazkoak ezartzen baititu talde horren premiei erantzuteko eta Nafarroako Gobernuak Lan Osasuneko III. Planaren bitartez hartu zuen konpromisoa betetzeko.

Gizarte Segurantzari laguntza ematen dioten mutuek ere badute beharra kontingentziak Gizarte Segurantzaren babespean dituzten autonomoei jakinarazteko zer koordinazio aukera duten hala jarduera konkurrentetarako nola Prevención10.es zerbitzuaren bidezko prestakuntzarako¹⁸

Xede-populazioa

Lan autonomoan diharduen taldea eta Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAEL) alta hartutakoak, lehen sektorekoak barne.

Helburu orokorrak

1. Laneko ezbehar-tasa murriztea langile autonomoen taldean.
2. Betetzea LAABaren 8. artikuluko xedapena, administrazio publikoen esku uzten dituen langile autonomoen prebentzio baldintzak babestu eta zaintzeko lanak.
3. Handitzea laneko istripuengatik eta lanbide eritasunengatik Gizarte Segurantzari kotizatzen dioten langile autonomoen ehunkoa.
4. Sustatzea langile autonomoaren prestakuntza segurtasunaren eta osasunaren arloan.
5. Prebentzioari begirako koordinazioa hobetzea enpresekin lan horiek enpresetan bertan egiten diren kasuetan

18 Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzaren 2015eko maiatzaren 4ko ebazpenaren bitartez ezarri zen Gizarte Segurantzaren prebentzio jardueren plan orokorra, Gizarte Segurantzari laguntza ematen dioten mutuek beren 2015eko jardueren plangintzan aplikatu beharrekoa.



Helburu berariazko eta zehatzak

	2017	2018	2019	2020
Lan baldintzak				
Geldiaraztea ezbehar-tasaren intzidentzia-indizearen gorakada lanbideko kontingentziak Gizarte Segurantzaren babespean dituzten langile autonomoen artean	X ₀	X ₀	X ₀	X ₀
Handitzea langile autonomoak lanean hasi aurretik zer arrisku dituzten jakinarazten dizkieten enpresen kopurua langile autonomoak erabili ohi dituzten enpresen artean.				
Handitzea laneko arriskuen prebentzioan prestakuntza duten autonomoen kopurua				
Arriskuen kudeaketa				
Mekanismoak sustatzea langile autonomoek NOPLOIren prebentzio arloko aholkuak jaso ditzaten hautemandako arriskuen aurrean				
Informazio sistemak				
Handitzea beren jardunean hautemandako arriskuak NOPLOIri jakinarazten dizkieten autonomoen kopurua	-	%3	%6	%10
Bide ematea langile autonomoak identifikatzeko erregistro berri baten estaldura maila handitzeari, NOPLOIn, prebentzio ekintzak garatzeko xede hutsez	-	%5	%8	%15
Sentsibilizazioa				
Gizarte Segurantzari lanbideko kontingentziengatik kotizatzeke onuraren berri zabaltzea langile autonomoen artean				

Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Arriskuen kudeaketa		
Sustatzea lan autonomoaren lanbide elkarteek parte hartu dezaten arlo horretako politika publikoen diseinuan eta betearazpenean, taldearen laneko arriskuen prebentzioa hobetzeko eta ezbehar-tasa murrizteko	2017	LAPA
Diseinatzea langile autonomoek hautematen dituzten arriskuen gaineko komunikazio-sistema	2017	LAPA
Prestatzea eta zabaltzea prebentzio arloko materialak eta bestelako prestakuntza-baliabideak, talde horri zuzenduak	2018	LAPA
Prebentzio sistema		
Informazioa partekatzea Gizarte Segurantzari laguntza ematen dioten mutuekin talde horretan egiten diren jarduketei buruz, administrazioaren jarduketekin sinergiak bilatzearen	2017/2018	LOZ
Sentsibilizazioa		
Arriskuen kudeaketari buruzko informazio eta sentsibilizazio kanpaina talde hau osatzen duten langileen artean, prebentzioa modu normalizatuan txertatzeko langile ororen eginbeharren kudeaketa arruntean	2018	LAPA
Langile autonomoen artean zabaltzea badela aukera prebentzio arloko aholkularitza jasotzeko NOPLOIren bitartez	2017	LAPA-UF1



	Egutegia	Unitate arduraduna
Informazio kanpaina ezagutarazteko zein diren lanbideko kontingentziak Gizarte Segurantzarekin aseguratzeko abantailak	2017	EPELD-GSIN
Eguneratzea eta zabaltzea segurtasunari eta osasunari buruz arlo horri zuzenduriko eduki berariazkoak NOPLOiko webgunean, eta haien jarraipena egitea	2018	
<i>Ikerketa</i>		
Azterlan bat egitea, lanbide elkarteekin eta sindikatuekin batera, ikertzeko zer arriskuren eraginpean dauden langile autonomoak	2017	

Ebaluazioa

Adierazleak
Ezbehar-tasaren intzidentzia-indizea lanbideko kontingentziak Gizarte Segurantzaren babespean dituzten langile autonomoen artean
Autonomoen zer ehunekok jakinarazten dizkion NOPLOIri bere jardunean hautemandako arriskuak
Autonomoen zer ehunekok jasotzen dituen NOPLOIren prebentzio arloko aholkuak, hautemandako arriskuen aurrean
Langile autonomoak identifikatzeko erregistro berri baten estaldura maila NOPLOIn, prebentzio ekintzak garatzeko xede hutsez
Gora egitea laneko istripu eta lanbide eritasunak estaltzeko gizarte segurantzaren kotizatzen dutenen kopuruak
Autonomoen zer ehunekok jasotzen duen estaldura horren egokitasunari buruzko informazioa programa honen bidez
Autonomoen zer ehunekok jaso duen prestakuntza laneko arriskuen prebentzioaren arloan
Prestakuntzako zenbat jarduera eta tresna eskaini zaien autonomoen taldeari NOPLOIko LOZaren bidez
Autonomoei lanean hasi aurretik zer arrisku dituzten jakinarazten dizkieten enpresen ehunekoa, langile autonomoak erabili ohi dituztenen artean
NOPLOIren zenbat eskuorri banatu diren enpresen eta langile autonomoen artean prebentzio jardueren koordinazioari dagokionez



6. OSASUNAREN ZAINZARAKO PROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Nafarroan 2014aren amaiaren, baziren 18 kanpoko prebentzio zerbitzu, laneko medikuntza lantzen, eta beste 52 prebentzio zerbitzu propio eta prebentzio zerbitzu mankomunatu, guztira Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko langileen %70 artatzen dutenak Nafarroan¹⁹.

Prebentzio zerbitzuetako osasun arloko profesionalen erronken artean ditugu oraindik ere diziplina aunitzeko elkarlana baliabide teknikoekin, enpresarekiko independentzia profesionalean aitzina egitea, kalteak goiz hautemateko efikazia hobetzea, langileen osasunaren zaintza kolektiboa garatzea eta aldezte langileendako borondatezkoa izan dadin arauan ezarritako osasun zaintza egitea.

Institutuan Laneko Medikuntzaren eta Lan Epidemiologiaren Atalari dagokio laneko medikuntzaren arloan Nafarroan diharduten prebentzio zerbitzuek garatutako berezko jardueren kontrola eta segimendua egitea. Horien artean dago osasunaren zaintza, bai norbanakoarena bai kolektiboa.

Lan osasuneko zaintza epidemiologikoaren sistemak barnean hartzen ditu lan istripuen (LI) eta lanbide eritasunen (LE) erregistro ofizialak, lan jardunean amiantoaren eraginpean dauden langileen osasun erregistroa eta lan osasuneko Zaintza Epidemiologikoaren Programa, helburu duena azaleratzea Osasun Sistema Publikoan artatzen diren patologietarik zein diren jatorria lanean izan dezaketanak. Azken programa hori sistematikoa da eta oinarrizko osasun laguntzaren programa informatikoan kokatua dago. Horregatik, aukera ematen du NOPLOIri arin eta isilpean jakinarazteko, eta pazientearen baimena izanik.

Nafarroan, gainera, sistema hori da profesionaltzat har daitezkeen eritasunen (lanbide eritasunaren susmoa) komunikazioari buruzko 1299/2006 Foru Dekretuaren 5. artikularen euskarria eta hura legez betetzen duena. Bestetik, prebentzio zerbitzuen osasun jardueraren kontrola ahalbidetzen du, osasunerako kalteak jakinaraziz, ikertu daitezen, baita lanpostuak doitzeko eskakizunak eginez ere, eginbeharrak egoki betetzea ahalbidetzarren langileen osasunerako kaltea gertatu eta gero. Orobat, jatorri arrunteko kalteen kasuan.

Xede-populazioa

Prebentzio zerbitzuetako osasun arloko profesionalak dira programaren hartzaile nagusiak, nahiz eta, azken batean, Nafarroako langile guztiak izan hartzaile.

Helburu orokorrak

1. Prebentzio zerbitzuek hobeki jardutea osasunaren zaintzan eta hobeki betetzea laneko medikuntzaren gaineko araudia.
2. Sakonago ezagutzea lanarekin loturiko kalteak.

Helburu berariazko eta zehatzak

	2017	2018	2019	2020
Arriskuen kudeaketa				
Handitzea osasunaren zaintza artaturik duten langileen ehunekoa	%70	%73	%75	%80
Prebentzio sistema				
Prestakuntza jarduerak egitea arriskuen araberako osasunaren zaintza berariazkoari buruz eta zaintza kolektiboari buruz, prebentzio zerbitzuetako osasun arloko langileendako				

¹⁹ NOPLOI 2014ko jardueren oroitidazkia www.ispln.es



	2017	2018	2019	2020
Informazio sistemak				
Handitzea NOPLOIk eskaturiko datuen gutxieneko multzoa igortzen duten prebentzio zerbitzuen kopurua	50	55	60	70
Laneko Medikuntzaren Atalak eta Ikuskatzailtza Medikoaren Atalak mutuei jakinarazitako kasuen segimendua egitea lanbideko eritasuntzat har dadin	x_0	$x_0 + \%20$	$x_0 + \%30$	$x_0 + \%40$
Sustatzea Oinarrizko Osasun Laguntzak eta Ikuskatzailtza Medikoak jatorria lanean izan dezaketen kalte gehiago jakinaraz diezaio ten lan osasunaren Zaintza Programari	1550	1650	1800	2000
Enpresek Delt@ sistemari laneko istripu gisa jakinarazi beharreko susmopeko kasuak handitzea eta haien jarraipena egitea.	80	100	120	150
Laneko istripuaren agiria ez tramitatzegatik Laneko Ikuskatzailtzari jakinarazitako kasuen segimendua egitea, enpresari eskaera egin eta gero	10	20	30	50
Ezagutzea zein diren laneko arriskuen prebentziorako atalen jarduerako osasunaren zaintzan				
Bermatzea LOZaren eta oinarrizko osasun laguntzako profesionalen arteko komunikazioa jakinarazitako kasuak aztertzeke				
Laneko Medikuntzaren Atalak modu agregatuan aztertzea jatorria lanean izan dezaketen susmopeko kalteen kasuak				
Sentsibilizazioa				
LAPA eta NOPLOIren arteko elkarlana sustatzea langileen osasunaren zaintzaren arloan				

Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Arriskuen kudeaketa		
Egiaztatzea osasuna zaintzeko jarduerak egiten direla eta sustatzea berariazko azterketa mediko egokiak egiten direla	Iraunkorra	LMLEA
Laguntzea osasunaren zaintza kolektiboa egiten eta hura egiaztatzea, baita emaitzak prebentzioari begirako plangintzan txertatzea ere	2017-2018	
Gomendioa langileen osasuna norberaren lanpostuari begira berariaz zaintzeko, bultzatuz 1299/2006 eta 843/2011 Errege Dekretuak zuzen aplikatu daitezen.	Iraunkorra	
Sustatzea berariazko azterketa medikoak egin daitezten laneko jatorria duten patologietan, sustagarria kenduz ebidentzia zientifikoetan oinarritzen ez diren jardunbideei	Iraunkorra	
Biltzea eta zabaltzea osasunaren zaintza berariazko arlo psikosozialean		
Hautemandako banakako kasuak aztertzeke metodologiaren jarraipena eta enpresan arazo horri modu kolektiboan heltzeko neurriak proposatzea, arriskuaren eraginpean dauden gainerako langileen osasunerako kalteei aitzindu ahal izateko	Iraunkorra	
Sustatzea lanbide eritasunen ikerketak: prebentzio zerbitzuetako langileendako aholkularitza (informazioa / prestakuntza) lanbide eritasunak ikertzeko	Iraunkorra	



	Egutegia	Unitate arduraduna
Sakontzea lan istripuen eta lanbide eritasunen eta lanak ekarritako eritasunen kausen azterketan	Iraunkorra	
Prebentzio sistema		
Jardunaldia egitea osasunaren zaintza kolektiboari buruz		
Foro egokietan defendatzea laneko azterketa medikoak borondatezkoak izan daitezzen, araudien oraingo irizpidearekin bat	Iraunkorra	
Informazio sistemak		
Mekanismoak ezartzea langileen osasunerako kalteak hautematea errazteko: lanbide eritasunak, lanarekin loturiko eritasunak eta laneko istripuak.	Iraunkorra	
Sustatzea prebentzio zerbitzuek duten eginkizuna lanbidekotzat har daitezkeen eritasunen jakinarazpenean. (azaroaren 10eko 1299/2006 Errege Dekretuaren 5. artikulua, Gizarte Segurantzako Sistemaren lanbide eritasunen taula onartu eta horiek jakinarazi eta erregistratzeko irizpideak ezartzen dituen)	Iraunkorra	
Mekanismoak uztartzea istripuen agiriak eskatzeko enpresetan baldin eta jakiten edo susmatzen bada langileen osasunerako kalteak daudela.	Iraunkorra	
Prozedura ezartzea prebentzio zerbitzuek datuen gutxieneko multzoa jakinarazteko NOPLOIri, 39/1997 EDaren 39. artikuluan aurreikusi bezala	2017	

Ebaluazioa

Adierazleak
Oinarrizko Osasun Laguntzak eta Ikuskatzailtza Medikoak jatorria lanean izan dezaketen zenbat kalte jakinarazi dioten lan osasunaren Zaintza Programari
Nafarroako langileen zer ehunekok duen artaturik osasunaren zaintza
Zenbat prebentzio zerbitzuek igortzen dituen NOPLOIk eskaturiko datuen gutxieneko multzoa
Atalak zenbat kasu jakinarazi dizkien mutuei lanbide eritasuntzat har daitezzen
Zenbat LAPAtan egin diren osasunaren zaintzaren jarraipenerako jarduerak eta zer ehuneko egiten duten
Zenbat eskakizun egin zaizkion LAPARI (elkarlanerako jakinarazitako zenbat eskaera)
Prestakuntzako zenbat ekintza egin diren eta prebentzio zerbitzuetako zenbat osasun langilek hartu duen parte NOPLOiren prestakuntza-ekintzetan
Jatorria lanean izan dezaketen kalteen kopuruaren eta motaren bilakaera, LMLEaren atalak ikerturik kasuen jakinarazpenaren jatorriari dagokionez
Delt@ sistemari lan istripu gisa jakinarazi beharreko susmopeko kasuen kopurua
Zenbat kasu jakinarazi zaizkion laneko ikuskatzailtzari lan istripuaren agiria ez tramitatzeagatik, enpresari jakinarazi eta gero
Zenbat osasun etxe ikuskatu diren jakinarazitako kalteen kasuak aztertzeke
Kalteen zenbat kasu ikertu dituen LMLEaren atalak
Zenbat txosten/irizpide egin eta helarazi dituen atalak



7. PREBENTZIO SISTEMA HOBETZEKO PROGRAMA

Programak honako azpiograma hauek ditu:

- Prebentzio moduak hobetzeko azpiograma
- Arriskuen kudeaketa hobetzeko azpiograma

PREBENTZIO MODALITATEAK HOBETZEKO AZPIPROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Uler daiteke laneko arriskuen prebentzio sistema honako hauek guztiek osatzen dutela: berariazko araudia, enpresen prebentzio modalitate ezberdinak, laneko, osasunetako eta gizarte segurantzako administrazio publikoak eta gizarte eragileak. Prebentzio sistemaren eraginkortasuna balioztatzeke ezinbestekoa da eraginkortasun hori neurtzeko parametroak definitzea. Dela kalteak urritzeari dagokionez dela arriskuekiko esposizioa murrizteari dagokionez.

2000. urtetik 2012.era ia erdira urritu dira Espainiako Estatuko eta Nafarroako istripu-tasen indizea. Zenbait egilek uste dute aipatu jaitsiera horretan prebentzio sistemak baino indar handiago izan dutela aldaketa ekonomikoek, hots, arriskupeko lan jarduerak desagertu izanak. 2008az geroztik, krisi ekonomikoak lagundu du jaitsiera horretan, jarduerak eta lan kargak egin dutelako behera.

2012az geroztik, gora egiten ari dira laneko istripuen intzidentziaren indizeak. Administrazioek eta egungo prebentzio modalitate ezberdinek aldi berean diharduten arren, ez da nahikoa azken lan erreformak enpleguen baldintzei ekarri dien desarautzearen eragina arintzeko ziklo ekonomikoaren oraingo fase hedakorrean²⁰. Arriskuen eraginpean egoteari dagokionez, administrazioak ez ditu lan populazio osoaren datu esanguratsurik, datu bakarrak langileek eta/edo enpresetako ordezkariak hautemandako arriskuen gaineko aldian behingo inkestetakoak dira eta. Datu horiek prebentzio modalitate ezberdinen esku daude.

Orain dela ia 20 urte ezarritako egungo prebentzio sistemak, indarrean jarri baitzen Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua izenekoa onetsi zuen 39/1997 Errege Dekretuaren argitalpenarekin batera, ahuleziak ditu eta, horren ondorioz, araudian etengabe egin behar izan dira aldaketak, huts horiek zuzentzeko. Hutsuneak, batez ere, prebentzio jarduerak enpresen eguneroko kudeaketan txertaturik ez daudelako gertatu ohi dira, eta hori hala da prebentzio zerbitzuek kanpokoak direlako maiz²¹.

2006an araudian sarturiko aldaketetako baten ondorioz berreskuratu egin zen Mutuek historian zehar bete duten eginkizun prebentiboaren zati bat. 2010az geroztik, Gizarte Segurantzak urtero argitaratzen du enpresa entitate horiek aplikatu beharreko Prebentzio Jarduerarako Plana bat²². Plan horiek ezbehar-tasa handieneko enpresetako prebentzio jarduketa zenbait garatzen dute, 10 langile (egun 25) baino gutxiagoko enpresen kasuan eta langile autonomoen artean.

Langile Autonomoaren Estatutuak, uztailaren 11ko 20/2007 Legearen bidez onetsi eta egun oraindik indarrean dagoenak, bere 8. artikuluan administrazio publikoei esleitzen die langile autonomoen segurtasun eta osasun arloetako baldintzak era aktiboan bermatzeko eskumena.

Enpresen kudeaketa orokorrean laneko arriskuen kudeaketa txertaturik ez dagoela argudiatuz, Ekintzaileei eta haien Nazioartekotzeari Laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legearen 39. artikulua Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea aldatu du eta prebentzioko eskumen teknikoak

20 Crepán X, y Castejón E. Accidentes de trabajo: (casi) todos los porqués. Cuadernos de Relaciones Laborales 2007. 25, (1), 13-57.

21 LSHIN La organización preventiva de las empresas en España: características distintivas respecto a otros modelos europeos. Diciembre 2015. <http://www.insht.es/catalogopublicaciones/>

22 Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzaren 2010eko ekainaren 9ko ebazpenak ezartzen du zein diren Gizarte Segurantzako lan istripuetako eta lanbide eritasunetako mutuek aplikatu beharreko irizpide eta lehentasunak 2010eko prebentzio jarduketan plangintzan; hori guztia azaroren 28ko TAS/3623/2006 Aginduan xedatutakoa garatu beharrez, agindu horrek arautu baitzituen Gizarte Segurantzaren esparruko prebentzio jarduerak eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Fundazioaren finantzaketa.



enpresariari berari esleitzeko aukera zabaltzen du, 10 langiletik beheitiko enpresetarako izan beharrean 25 langiletik beheitikoetaraino hedatzen baita orain aukera hori.

Aldaketa horrekin batera, administrazio publikoek enpresa horietan egiten duten prebentzio jarduketa indartzeko agindua dator. Horretarako, hamazazpigarren xedapen gehigarria erantsi zen LAPlan, zeinak ezarri baitu Enpleguaren eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak eta Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalak, autonomia erkidegoekin eta gizarte eragileekin elkarlanean, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko aholkularitza tekniko berariazkoa emanen dietela hogeita bost langile arteko enpresei.

Beraz, ikusten dugunez, indartzen ari da administrazio publikoek laneko arriskuen prebentzian duten eginkizuna.

Bestalde, administrazio publikoek eskumen mugatuak dituzte Prebentzio Zerbitzuei buruzko 39/1997 Errege Dekretuan ezarritako prebentzio modalitate ezberdinetako jarduketak kontrolatzeko. NOPLOIk direktorio bat dauka informazioa biltzen duena 10 langiletik goitiko enpresetan laneko medikuntzan dituzten baliabideei buruz. Kanpoko prebentzio zerbitzuen erregistrarako SERPA Aplikazioaren informazioa arazotsua da fidagarritasunari begira.

Beste alde batetik, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduko 2015. urteko azken aldaketek²³, mugatu egin dute autonomia erkidegoek entitate horien baliabideak egiaztatu eta begiratzeko duten kontrola.

Garatu beharra dago Nafarroako administrazio publikoek aipatu lantaldeei begira prebentzio arloan duten eginkizuna, arriskuak kudeatzeko irizpideak partekatzea prebentzio modalitate ezberdinekin, kanpokoak nahiz propioak izan, eta jarduketa horiek Gizarte Segurantzak antolatutakoekin koordinatzea.

Nafarroako Gobernuaren 2017rako aurrekontuak Parlamentuan eztabaidatzeko prozesuan, zuzenketa bat onetsi da NOPLOI 250.000 euroz hornitzeko langileak kontrata ditzan ekintza plan hau bultzatu eta garatzearen. Egun gutxi lehenago, Parlamentuko gehiengoak onetsi zuen Nafarroako Gobernuak garatu egin beharko lukeela laneko ezbehar-tasaren kontrako borroka-plan bat. Gure ustez, Parlamentuko bi aginduak bateratzen ditugu baliabide ekonomiko horiek erabiliz araudietako aipatu aldaketa horiek administrazio publikoei esleitzen dizkieten prebentzio jarduketak garatzeko.

Xede-populazioa

NLBOI-Nafarroako Lan Baldintzen eta Osasunaren gaineko III. Inkestaren arabera, interesgarria da prebentzioko ordezkariak egotea, arriskuen gaineko azterlanak egitea inkesta aurreko urtean eta osasunaren zaintza eskaintzea eta egitea langileei.

Jarduera ekonomiko hauetan dira jarduketa horiek urrien:

- Ostalaritza
- Administrazio publikoa/Hezkuntza
- Garraioa
- Nekazaritza
- Osasuna
- Gizarte eta osasun zerbitzuak eta
- aisialdiko, kultura eta kirol jarduerak

Parlamentuko aginduak oinarri harturik, honako hauek erantsi dira:

- 25 urtetik beheitiko enpresak, Istripuak Gutxitzeko Programetan eta Gihar-Hezurretako Arazoei Aitzintzeko Programan lehentasunezko jarduna behar duten taldeetakoak
- Langile autonomoen taldea

23 Urriaren 9ko 899/2015 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua aldatu zuena.



Helburu orokorrak

1. Bultzatzea administrazio publikoak prebentzio eragile gisa duen eginkizuna
2. Lankidetzeta hitzarmenak ezartzea prebentzio modalitate guztiekin

Helburu berariazko eta zehatzak

	2017	2018	2019	2020
Lan baldintzak				
NOPLOIk prebentzio jarduketak abiaraztea eta, hala behar bada, egitea lanbide kontingentziak GSINeren bidez estaliak dituzten enpresetan.	0	%20	%30	%50
NOPLOIk prebentzio jarduketak egitea Ekintza Plan honetako autonomoen programako partaide diren langile autonomoendako				
Arriskuen kudeaketa				
Handitzea NOPLOIko Lan Osasuneko Zerbitzuaren mintegi eta bestelako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten prebentzio zerbitzuen eta bestelako prebentzio modalitateen kopurua				
Prebentzio sistema				
Bultzatzea toki entitateen arteko prebentzio zerbitzu mankomunitateen sorrera	0	3	7	10
NOPLOIk jarduketak garatzea arriskuak identifikatzeko eta ekintza zuzentzaileak proposatu eta betearazten direla egiaztatzeko 25 langiletik beheitiko enpresetan	0	30	70	100
Akordioa sustatzea Nafarroan diharduten mutuekin, NOPLOIri jakinaraz diezaioten zer-nola betearazten diren Nafarroan Gizarte Segurantzaren urteko prebentzio planak				
Informazio sistemak				
Behar den informazioa izatea prebentzio modalitate ezberdinen jarduketan hobekuntza sostengatzeko				

Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Lan baldintzak		
Udalbatzei laguntza eta aholkularitza ematea laneko arriskuen prebentzioaren arloan, bereziki udalerrri txikikoei	2017	LOZ
Arriskuen kudeaketa		
Begiratzea bete egiten direla TIN/2504/2010 Aginduko alor psikosozialeko alderdiak	2017	LAPA
Prebentzio modalitate ezberdinekin partekatzea arriskuak kudeatzeko jarduketa-irizpideak, prozedurak eta metodoak eta haien jarduketa teknikoen kalitatea baloratzea	2017-2019	LAPA
Arriskuen kudeaketa egokirako laguntza ematea 25 langiletik beheitiko enpresetan	2017-2019	LAPA
Prebentzio jarduketak garatzea langile autonomoen artean	2017-2019	LAPA
Prebentzio sistema		
Sustatzea udalendako prebentzio zerbitzu mankomunitateak sor daitezen eta aholkularitza ematea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta toki zerbitzuen mankomunitateei	2017	LOZ



	Egutegia	Unitate arduraduna
Jarduketa irizpideak adostea prebentzio modalitate ezberdinen eta NOPLOren artean	2017-2019	LOZ
Informazio sistemak		
Programa bat garatzea mutuek prebentzio eta osasun arloan garaturiko jarduerari buruzko informazioa biltzeko (probak, tratamenduak, Gizarte Segurantzaren prebentzio plana...)	2016	
Erregistro bat sortzea identifikatzeko Nafarroako prebentzio zerbitzuen prebentzio modalitateak, prebentzio ordezkariak, enpresetako arriskuen kudeaketa eta dokumentazioa (PZEKO 20.2 artikulua).	2017	
Kontrolatzea kanpoko prebentzio zerbitzuak SERPAN inskribaturik daudela eta begiratzea haien informazioa eguneratzen dela	2017	EPELD
LGSiren urteko jarduketa planean sartzea mutuek Nafarroan garatzen dituzten prebentzio jarduketan jarraipena Gizarte Segurantzaren prebentzio jarduketan urteko plana aplikatuz	2017-2018	LOZ
Sentsibilizazioa		
Arriskuen kudeaketari buruzko tresnen zabalkundea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean, hau da: arrisku higieniko fitosanitarioak, zarata, dardarak (lorezainak); biologikoak (etxez etxeko laguntza, pasadizokoen zentroak, kale-garbitzaileak); hozberoa; kimikoak (mantentze-lanak); ergonomiko, psikosozial eta segurtasunekoak	2017	LAPA-UF1
Ikerketa		
Biltzea MATEPSeK arrisku sozialagatik egindako artatze-lanak; harturiko neurriak eta lan istripuztat hartu ote diren	2017-2019	LAPA
Aztertzea zer behar dituzten toki entitateek laneko arriskuen prebentzioan	2017	LAPA

Ebaluazioa

Adierazleak
Toki entitateetako zenbat prebentzio zerbitzu mankomunatu berri sortu diren Nafarroan
Ekintza plan honetako langile autonomoen azpiprogramak hartzen dituen langile autonomoen ehunekoak
Lanbide kontingentziak GSINeren bidez estaliak dituzten enpresen zer ehunekotan garatzen diren NOPLOren Lan Osasuneko Zerbitzuaren prebentzio jarduketak
25 langiletik beheitiko zenbat enpresatan identifikatu dituen arriskuak NOPLOik, proposatu dituen ekintza zuzentzaileak, eta betearazten direla egiaztatu
Zenbat prebentzio zerbitzuek eta bestelako prebentzio modalitatek hartu duten parte NOPLOiko Lan Osasuneko Zerbitzuaren mintegi eta bestelako prestakuntza-ekintzetan
KPZ, PZP eta PZMen zer ehunekorekin sinatu dituen NOPLOik lankidetzak akordioak enpresetako prebentzioa kudeatzeko gako diren gaiei buruz
Zenbat prebentzio zerbitzuek eta bestelako prebentzio modalitatek hartu duten parte NOPLOiko Lan Osasuneko Zerbitzuaren mintegi eta bestelako prestakuntza-ekintzetan
Nafarroan diharduten mutuen zer ehunekok jakinarazten dioten NOPLOiri zer-nola betearazten diren Nafarroan Gizarte Segurantzaren urteko prebentzio planak



ARRISKUEN KUDEAKETA HOBETZEKO AZPIPROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Laneko arriskuen kudeaketaren barnean arriskuen prebentzioari buruzko araudian aurreikusitako zenbait etapa daude, hasi arriskuen identifikazioarekin eta buka aplikaturiko prebentzio neurrien eta/edo neurri zuzentzaileen balorazioarekin. Prozesuak, beraz, programazio efizientea du ezaugarri. Beste bereizgarri bat da fase guztietan ezartzen duela alderdien arteko negoziazioa, hots, enpresariaren eta langileen edo haien ordezkarien artekoa.

Arriskuen kudeaketaren zikloa izenekoak honako etapa hauek ditu: arriskuen identifikazioa, saihesteko modukoak direnak ezabatzea, hondar arriskuen ebaluazioa, heldu beharreko arriskuen lehenespena, neurri zuzentzaileak programatzea ebaluazioaren arabera, neurri horiek aplikatzea eta haien jarraipena egitea, behar diren baliabideak bideratzea, kronograma bat ezartzea eta, azkenik, programatutakoaren efikazia aztertzea.

Arriskuak ebaluatzeko erabili beharreko metodoak direla-eta, legediak berak ezartzen du zer hurrenkeratan lehenetsi behar diren: lehenik, legezko araudi batean aurreikusitakoa; halakorik ezean, UNE arau batean jasotakoa; halakorik ezean, erakunde ofizialetako gidetan zehazturikoa; halakorik ezean, nazioarteko gidetan iradokitakoa edo, azkenik, erakunde erantzuleek proposaturikoak.

Gure eskarmentuak erakutsi digu ez zaiola behar bezalako garrantzirik ematen arriskuak identifikatzeko faseari eta haiek berehalakoan konpontzeari. Prebentzioaren kudeaketa arriskuen ebaluazioarekin hasi behar zela ulertu da. Bestalde, ebaluazio metodo berariazkoa erabili beharrean arrisku mota bakoitzerako, metodo orokor bat erabili ohi da, hala nola metodo bitarra deiturikoa. Esan daiteke metodo hori erabiltzen denean hura aplikatzen duten teknikariek arriskuak identifikatu eta lehenesten dituztela. Arriskuak identifikatzeko fasean, beraz, ezabatu egiten da langileen eta haien ordezkarien partaidetza, hain beharrezkoa den arren, baita osasunaren zaintzaren emaitzei buruzko gogoeta ere. Eta, hortaz, saihestu egiten da ebaluaziorako metodo berariazkoen erabilera.

Bestetik, ebaluaziorako metodo berariazkoak aplikatzeak ekarri duen esperientziak agerian utzi du kostu handi samarra dakarrela bai giza-baliabide espezializatuei bai denborari dagokienez. Horregatik, balidaturiko metodoak abiaburu harturik, sinplifikatzeko ahalegina egin da, ahalik eta informazio gehien eskuratzeko ahalik eta aldagai gutxien erabiliz, efizientziarik handiena bermatzearen prebentzioan. Hala, arrisku kimikoa ebaluatzeko metodologia erraztuak garatu dira. Ergonomian, berriz, parte-hartzaile deituriko metodoak bultzatu dira. Arlo psikosoziologikoan ez zegoenez harreman-arriskuak ebaluatzeko tresna balidaturik, soziologiatik datozen metodo kualitatiboak erabili dira hutsune hori konpontzeko. Edo, ISTAS 21 galde-sortarekin gertatu den bezala: bertsio labur bat sortu da, balidaturiko bertsio luzeago bat oinarri harturik.

Programa honen bitartez, asmoa da arriskuak kudeatzeko fase bakoitzerako tresnarik efizienteen aplikazioa zabaldu eta adostea Nafarroako enpresetako prebentzio modalitate orotan, baita sustatzea ere langileen eta haien ordezkarien partaidetza arriskua kudeatzeko fase guzti-guztietan. Ekintza plan honetan, bestetik, bada programa zehatz bat osasunaren zaintzaren emaitzak prebentzioaren plangintzan sartze aldera.

Xede-populazioa

- EJSNaren jarduera sailtako langileak, lehentasunez ekitekoak direnak kalteen intzidentzia handiaren eta esposizioaren maiztasunaren arabera.
 - Segurtasuna: [JESN: 10, 22, 24, 25, 28, 29, 43, 45, 49, 87].
 - Ergonomia: [JESN: 10, 22, 25, 43, 45, 78, 87, 88].
 - Arrisku higienikoak: metala, manufakturak, eraikuntza, garraioa.
 - Psikosoziologia: administrazio publikoa, ostalaritza, kultura, aisialdia, ibilgailuen salmenta eta konponketa, zerbitzu osagarriak, gizarte eta osasun zerbitzuak.
- Prebentzio arloko profesionalak eta prebentzioko ordezkariak aipatu taldeetako enpresa txiki eta ertainetan.

Helburu orokorrak

1. Prebentzioaren kudeaketa hobetzea enpresetan.
2. Sustatzea langileen eta haien ordezkarien partaidetza arriskuen kudeaketan.



Helburu berariazko eta zehatzak

	2017	2018	2019	2020
Arriskuen kudeaketa				
Handitzea arriskuak identifikatu ondoren haiek ezabatzen dituzten enpresen ehunekoa	n ₀	n ₀ + %10	n ₀ + %15	n ₀ + %20
Handitzea osasunaren zaintza kolektiboa egiten duten enpresen ehunekoa				
Goititzea programetako prebentzio neurriak aplikatzen dituzten enpresen ehunekoa				
Bultzatzea prebentzio arloko programazioaren eraginkortasunari buruzko azterketa				
Ezagutzea enpresen zer ehunekotan parte hartzen duten langileek edo haien ordezkariak arriskuen identifikazioan eta ehuneko hori handitzea				
Bultzatzea arriskuak ebaluatzeko metodoei buruzko kontsulta egin dakien sindikatuetakordezkariei				
Akuilatzea Prestakuntza planari buruzko kontsulta egin dakien langileen prebentzio arloko ordezkariak				
Sustatzea sindikatuetakordezkariei eman dakien prebentzio jarduketan urteko oroitidazkia				
Bultzatzea prebentzio arloko urteko planari buruzko negoziazioa enpresetan				
Sustatzea, 50 urtetik beheitiko enpresetan, alderdietako ordezkarien arteko aldian aldiko bilkurak ezar daitezkeen prebentzio arloko programazioaren jarraipena egiteko				

Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Arriskuen kudeaketa		
Erakunde eta entitateetako topaguneak enpresetako jardunbide egokien zabalkunderako	2019	LOZ
OIRA eta Prevención 10 bezalako ebaluazio tresnen zabalkundea, kontuan harturik gihar-hezurretako arriskuen kudeaketarako alderdiak	2018	LAPA-UF1
Balioestea prebentzioarekiko konpromisoa erakusten duten enpresen aitortza, dauzkaten lan osasuneko programak, jarduketak eta jardunbide onak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean ezarritakoa hobetzen dutenean	2018	LAPA
Indar egitea arriskuak ebaluatzeko sistemetan, mekanismoak ezar daitezkeen lanpostuen ebaluazio orokorraren ordezkarietarako egiten dela bermatzearen eta ebaluazio hori metodo erraztuekin egitearen	2017	LAPA
Prebentzio zerbitzuetako higie teknikarien eta sindikatuetakokabineteen prestakuntza, UNE 689 arau berria aplikatzen eta arriskuak ebaluatzeko metodo kualitatiboak erabiltzen ikasteko	2018	LAPA
Bultzatzea langileen osasunaren zaintza kolektiboaren emaitzak txerta daitezkeen enpresetako prebentzio arloko plangintzan	2017	LMLEA
Arriskuen kudeaketari buruzko mintegia egitea prebentzio modalitate ezberdinei zuzendurik	2018	LAPA-UF1
Kanpoko prebentzio zerbitzuendako kanpainak, arriskuak modu berariazkoan eta ez orokorrean ebaluatzeko sistemen garrantziari buruz	2017	LAPA



	Egutegia	Unitate arduraduna
Informazio sistemak		
Informazioaren erregistroa prebentzio zerbitzu, prebentzioko ordezkari, enpresa eta abarrendako, egiaztatze aldera arriskuen berariazko ebaluazioa egiten direla eta ez orokorrak	2017-2019	LAPA
Sentsibilizazioa		
Atari berariazko bat sartzea webgunean jardunbide egokiei buruz	2018	LAPA-UF1
Bi urtetik behingo sariak antolatzea jardunbide egokien alorrean.	2018	LAPA-UF1
Gidak edo bestelako agiriak zabaltzea prebentzioaren kudeaketa errazteko, batez ere enpresa txiki eta ertainei eta mikroenpresei begira	2017-2019	LAPA
Komunikabideetan zabalkunde-lana egitea prebentzio integratzearen garrantziaz eta premiaz: bilkuren prentsa-oharrak, CNSL, elkarrizketak...	2017-2019	LOZ-PIU
Webgunean argitaratzea arriskuak identifikatzeko metodoak eta metodologia erraztuak	2017-2019	LAPA

Ebaluazioa

Adierazleak
Arriskuak identifikatu ondoren haien ezabatzen dituzten enpresen ehunekoa
Osasunaren zaintza kolektiboa egiten duten enpresen ehunekoa
Programetako prebentzio neurriak aplikatzen dituzten enpresen ehunekoa, diziplina prebentiboaren arabera ¹ <ul style="list-style-type: none"> • Segurtasuna • Higienea • Ergonomia • Psikosoziologia
Enpresen zer ehunekotan aztertzen den prebentzio arloko programazioaren eraginkortasuna
Zenbat eskuorri, fitxa eta argitalpen egin diren arriskuak identifikatzeari buruz prebentzioko diziplinaren arabera
Enpresen zer ehunekotara iritsi den aurreko material horien zabalkundea
Enpresen zer ehunekotan parte hartzen duten langileek edo haien ordezkariak arriskuen identifikazioan ²
Enpresen zer ehunekotan egiten zaien kontsulta sindikatuetakoko ordezkariak arriskuak ebaluatzeko metodoen gainean ²
Enpresen zer ehunekotan egiten zaien kontsulta langileei prestakuntza planaren gainean ²
Enpresen zer ehunekotan ematen zaien sindikatuetakoko ordezkariak prebentzio jarduketaren urteko oroitidazkia ²
Enpresen zer ehunekotan negoziatzen den urteko prebentzio plana ²
50 langiletik beheitiko enpresen zer ehunekotan egiten diren aldi behingo bilerak aldean ordezkarien artean prebentzio arloko programazioaren jarraipena egiteko ²
Langileek edo haien ordezkariak zenbat kontsulta egiten dieten prebentzio modalitate ezberdinetako profesionalak ²

1. *Iturria: Gestió de la prevenció de riscos laborals a les empreses de Catalunya 2014. Subdirecció General de Seguretat i Salut Laboral. Departament d'Empresa i Ocupació. Generalitat de Catalunya Barcelona 2015.*

2. *Ebaluazioan desberdinatu egiten dira 5 langile bitarteko enpresak, 6tik 50era bitartekoak eta 50 langiletik goitikoak.*



8. PRESTAKUNTZA, INFORMAZIO ETA IKERKETA PROGRAMA

Sarrera / Egoeraren azterketa

Nafarroako Lan Osasuneko III. Planak (2015-2020) xede du ahalik eta gehien murriztea langileen osasunerako kalteak, prebentzioaren kultura sortuz eta indartuz. Horretarako, lan arriskuen prebentziorako prestakuntzaren eta informazioaren arlokoak dira 2017-2020 Ekintza Planean eginen diren jardueretako asko. Ezinbestekoa da prestakuntza arloko laguntza materiala eta metodologikoa Ekintza Planaren beste programetan aurreikusitako jardunaldi, mintegi, ikastaro eta topaketa aunitz horietarako. Prestakuntza prebentzio arloko zeharkako jarduera da eta gainerako prebentzio jarduerekin bat etortzeak baldintzatuko du noraino den eraginkorra. Horregatik, programa hau euskarria eta sostengua izanen da Ekintza Plan honetako gainerako programetan garatu beharreko ekintzetarako.

Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Espainiako Estrategiaren barnean (EESST 2015-2020), hezkuntza eta prestakuntza arloan (2. helburua) Prestakuntzako Plan Nazionalako neurriak bultzatzea aurreikusi da (besteak beste lanbide heziketa eta enplegurako prestakuntza), sentsibilizazio-programak ezartzea eskoletan eta prebentzio arloa modu zeharkakoan txertatzea unibertsitateko zenbait gradutan. Programa honek erantzun nahi dituen garrantzi handiko erronkak denak ere.

Sindikatuak prebentzio arloko ordezkarien prestakuntza premiazkoa dela agerrarazi diote NOPLOiri eta horri heldu beharra dago orain, Nafarroako Gobernu berriak ekarri dituen aldaketa garai hauetan, sindikatuekin eta prestakuntza entitate homologatuekin elkarlanean betiere.

Programa honetako beste lan eremu nagusi izanen da, orobat, Prebentzio modalitate ezberdinen prestakuntza premiak hautematea eta haiei ematen zaien erantzuna indartzea (langile izendatuena, KPZena, PZPena, enpresariena). Erronka zaila izanen da, halaber, langile autonomoek prebentzio arloan duten prestakuntzan aurrera egitea, hain txikia izanik LSHINEk sorturiko tresna telematikoen erabilera.

Teknologia berrien erabilera orokortu den honetan, ezinbestekoa da aztertzea nolako eragin-kortasunez ari diren erabiltzen arriskuen prebentzioaren alorrean eta nola bultzatu daitezkeen, bazterrean utzi gabe langileei informazioa helarazteko beste tresna tradizionalago batzuk.

Beharrezkoa da prestakuntza jarduerak ebaluatzea bai ezagutzei dagokienez eta baita jasotako trebetasunei eta ezarritako jokamoldeei dagokienez ere. Gure asmoa da aurrera egitea prestakuntza-ekintzen ebaluazioaren ezarpenean eta haien efektu eragingarrietan, hala epe motzean nola epe luzean.

Azkenik, gure prestakuntza lanaren hartzaille diren talde guztien elkarlana eta partaidetza izanen dira programa honen bereizgarri, iruditzen zaigulako irakasleak enpresetako prebentzio premiak ezagutzeko garrantzi handikoa den informazioa biltzen duela jardun horretan. Eta horiek dira administrazioaren politikak gidatuko dituztenak.

Xede-populazioa

- Populazio osoa
- Lan merkatuan sartu aurreko faseetan dauden ikasleak.
- 25 langiletik beheitiko enpresak, kanpoko prebentzio zerbitzurik kontraturik ez dutenak.
- Lan osasunaren profesionalak, hala prebentziokoak nola laneko medikuntza eta erizaintzakoak.
- Ekintza Plan honen programetan lehentasunezko jarduna behar duten populazioak.

Helburu orokorrak

1. Handitzea eta hobetzea laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioaren zabalkundea herritarren artean.
2. Indartzea laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza LHn, Unibertsitatean eta Enplegurako prestakuntzan
3. Bide ematea Ekintza Planeko programen garapenerako behar diren prestakuntza jarduerak kalitatez burutu daitezen, metodologia parte-hartzaileak eta emaitzen ebaluazioak sustatuz.



Helburu berariazko eta zehatzak

	2017	2018	2019	2020
Arriskuen kudeaketa				
Handitzea NOPLOIk teknologia berriak erabiliz egiten dituen prestakuntza eta informazio ekintzak, eta haien kalitatea hobetzea				
Prestakuntza moduluak sortzea eta prestatzaileak prestatzea prebentzio arloko ordezkarien eskumenen erabilerari begira	1	3	5	7
Sentsibilizazioa				
Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean aritzea LAPeko prestakuntza txertatzeko LHko lanbide arlo guztien ikastetxeetako curriculumetan	n ₀	n ₀ + ikastetxeen %20	n ₀ +%40	n ₀ +%60
Sostengu ematea prebentzio arloko edukiak ikasteko betebeharra egon dadin enplegurako gaitzeko prestakuntzan	n	n + ziurtagirien %10	n+%15	N+ %30
Sustatzea NOPLOIren webgunea erabiltzea laneko osasunaren arlorako				
Ekintza plan hau zabaltzea enpresa eta langileen artean				
Handitzea NOPLOIren laneko osasunari buruzko aldizkarien hartzaile kopurua				
Babestea Ekintza Plan honen ondoriozko zabalkunde kanpainak				
Ikerketa				
Ezagutzea noraino sartzen diren LAPeko edukiak prebentzioarekin lotuen dauden unibertsitate graduatan, eta alor hori hobetzea.				

Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Arriskuen kudeaketa		
Irakasleekin batera Batxilergo eta LHRako prestakuntza baliabideak osatzea laneko arriskuen prebentzioan	2017	LAPA-UF1
10/25 prebentzioari loturiko lantegiak, enpresariak berak prebentzioko eginkizun teknikoak bere gain hartzen dituen enpresetan	2017	LOZ-PIU
Lan Osasunaren Zerbitzuak, gizarte eragileen partaidetzarekin batera, Talde berariazkoendako Prestakuntza Plana ezartzea (prebentzioko ordezkariak, LAPA zerbitzuetako teknikariak eta osasun langileak, enpresariak eta langile autonomoak)	2017-2019	LOZ-PIU
Sustatzea behar besteko prestakuntza eskaintza laneko arriskuen prebentzioaren arloan Enplegurako Eskola Lantegietan eta enplegurako lanbide heziketako programetan	2017	PIU
Prestakuntzako ekintza berariazkoak egitea laneko arriskuen prebentzioaz beren baliabideekin arduratzen diren enpresendako (enpresaria bera edo esleituriko langileak arduratzen direla)	2017	PIU
Jardunaldiak, argitalpenak eta kanpainak prebentzioko eginkizun teknikoak enpresariak berak bere gain hartzen dituen enpresetarako	2017-2019	PIU-LAAHA
Bermatzea langileek prestakuntza eta informaziorako duten eskubidea	2017	PIU
BASEQUIMaren zabalkunde enpresariak berak prebentzioko eginkizun teknikoak bere gain hartzen dituen enpresetan	2017	LAPA



	Egutegia	Unitate arduraduna
Sentsibilizazioa		
Elkarlanerako sistema bat ezartzea Hezkuntza Departamentuarekin prebentzioaren balioak zeharka txerta daitezzen lanbide heziketan eta bestelako lerro batzuetan	2016	PIU-Hezkuntza Departamentua
Teknologia berrien bitartez zabaltzea Lan osasuneko Zerbitzuak egindako kanpainak eta programak	2017	LOZ
Bideokonferentzia aktibatzea, moodle plataforma eguneratu eta erabiltzea, streaming indartzea...	2017	PIU
Aukeratzea Europako Agentziak eta intereseko beste entitate batzuek prestaturiko material interesgarriak eta Webgunean aipatzea	2017-2019	LOZ
Sentsibilizazio jarduerak egitea (jardunaldiak, saioak, etab.), prebentzio diziplinaren arabera, prebentzioko teknikariak izan gabe ere laneko segurtasunaren eta osasunaren hobekuntza eta langileen babesaren sendotu ditzaketen eginkizunak dituzten profesionalendako (osasun arloko profesionalak, kontrol erakundeetako teknikariak, aholkulariak, bizilagunen erkidegoak...)	2017	LAPA-UFI
Elkarlanerako ildoak ezartzea unibertsitateko prestakuntzarako zentroekin, sustatze aldera ikasketa planetan modu zeharkakoan txerta dadin arriskuen prebentzioa	2018	PIU
Ikerketa		
Berraztertea NUPEkin eta UNEDekin izan diren elkarlanenak	2018	PIU

Ebaluazioa

Adierazleak
Lan Osasuneko webgunean egunean dituen sarreren hilabeteko eta urteko batezbestekoa
Zenbat enpresatara iritsi diren Ekintza Plan honen jarduketan bidez zabalduriko materialak
Zenbat hartzaile dituen NOPLOIren lan osasuneko aldizkariak
Zenbat prestakuntza eta informazio ekintza egin diren teknologia berriak eta pedagogiako metodologia berriak erabiliz
Zenbat zabalkunde kanpaina egin diren LAPeko edukiak zabaltzeko talde jakin batzuen artean
Lanbide Heziketako zenbat lanbide arlok txertatzen duten LAPari buruzko prestakuntza curriculumean
Zenbat unibertsitate graduk txertatzen dituzten LAPari buruzko eduki berriak
Enplegurako prestakuntzan dauden zenbat pertsonak jaso duen gaitasunen bati buruzko prestakuntza
Lanbide Heziketako LPO moduluko irakasleen zer ehunekok jaso duen prestakuntzarik LAPeko teknika eta eduki berrietan
Zenbat prestakuntza-jardunaldi burutu diren ekintza planetan
Zenbat prestakuntza ordu eskaini zaizkien prebentzioko ordezkariari, profesionalari eta langile autonomoari



9. ERAKUNDEEN ELKARLANERAKO ETA KOORDINAZIORAKO PROGRAMA

Sarrera/ Egoeraren azterketa

Laneko arriskuen eraginpearen nolakotasuna eta garrantzia direla-eta, ezinbesteko da egiazko koordinazioa izatea arlo hauen guztien artean: enpresetako arriskuen kudeaketa, laneko eta osasuneko administrazioetako prebentzio politikak eta lanaren eta enpleguaren baldintzetan eragina izan dezaketen bestelako politikak

Orain arte aldizkakoak ez diren bilerak egin dira Politika Ekonomikoko, Enpresarialaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiaren (PEELZN), Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren eta Lanaren eta Lan Osasunaren Zerbitzuen artean. Komenigarria litzateke hautematea eta agerian jartzea zein diren jarduteko alor amankomunak (prebentzio zerbitzuen erregistroa, prestakuntzako entitate homologatuen erregistroa, lan baldintzak hobetzeko diru-laguntzak, estatuko erakundee-tarako ordezkariak, etab.)

Lan Osasuneko Kontseiluan, gizarte eragileek lan osasunaren arloan parte hartzeko duten organoa denez gero, honako hauek hartzen dute parte: Osasun Departamentuak, Politika Ekonomikoko Enpresariaren eta Lanaren Zuzendaritzak (PEELZN) eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza (LGSi). Haren mendeko lan taldeak eta batzordeak eratzen badira, aukera egonen da prebentzio arloko beste eragile batzuen parte-hartzea handitzeko.

Oraingo eginkizuna izan beharko litzateke lankidetzarako hitzarmena ezartzea Nafarroako Administrazioaren eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren artean, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza Sistema Antolatzeko uztailaren 21eko 23/2015 Lege berrian ezarri bezala. Nafarroako Administrazioak eta LGSik urtero hitzartu behar dutenez ikuskapen-jarduketan plangintza laneko arriskuen prebentzioaren arloan, baita plangintza horren jarraipena ere, badute aukera araudia aplikatzeko irizpideen gaineko adostasunetan aurrera egiteko.

Estatu mailan, berriz, hainbat erakundetan hartzen da parte: Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kontseilu Nazionalean, Laneko Arriskuen Prebentziolari buruzko 31/1995 Legeak eratu baitzuen, Laneko Arriskuen Prebentziolarako Fundazioan eta, beste autonomia erkidegoekin txandaka, zenbait lantalde teknikotan. Era berean, Osasun eta Kontsumo Ministerioko Osasun Publikoaren Batzorde Txostengilean ere parte hartzen da. Beharrezkoa da behar diren baliabideak sortzea foro horietatik guztietatik datorren informazioa partekatzeko.

Gizarte Segurantzak 2010az geroztik urtero aurkezten du bere Prebentzio Jarduketetarako Plana. Plan hori Gizarte Segurantzaren entitate laguntzaileek garatzen dute laneko kontingentziak estaltzean. Entitate horiek beren langileei soilik zuzenduriko prebentzio jarduerak garatzen ahal dituztenez, nahitaezkoa da prebentzioaren plangintza koordinatzeko mekanismoak sortzea lurraldearen ikuspegitik lan egiteko.

Nahitaezkoa da laneko arriskuen prebentzioaren elementuak txertatzea garabidean dauden bestelako plan eta programetan (genero-indarkeria, zahartze aktiboa, osasun arloko desberdinkeria, osasun publikoaren programak...) beren hartzaileen artean langileak eta laneko prebentzio arloko eragileak baldin badaude. Hala, bereziki koordinatu beharko dira programa horiekin loturiko NOPLOIren atal guztiak (behakaria, osasunaren sustapena, ingurumen-osasuna, diagnostiko goiztiarra, etab.) laneko osasunaren zerbitzukoekin.

Xede-populazioa

Administrazio publikoen unitateak, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan eskumenak dituztenak.



Helburu orokorrak

1. Koherentzia indartzea eta sinergiak bilatzea beste administrazioen enplegu, hezkuntza eta genero arloko politika eta planen, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren aldeko politikien artean.
2. Jarduketak koordinatzea NOPLOIren beste zerbitzuekin.

Helburu berariazko eta zehatzak

	2017	2018	2019	2020
Prebentzio sistema				
Sustatzea prozedura eta irizpide amankomunak ezartzeko akordio idatziak egin daitezten administrazioen eta beste entitate batzuen artean segurtasunaren eta osasunaren arloan	1	2	3	4
Sustatzea segurtasun eta osasun arloko programa bateratuak ezar daitezten beste administrazio batzuekin	1	3	5	7
Handitzea beste entitate eta administrazioekin laneko osasunaren arloan dauden lankidetzak eta lankidetzak horien eremuak				
Koordinaziorako eremu iraunkorrak eta aldizkakoak ezartzea prebentzioko beste entitate eta administrazio batzuekin, baita NOPLOIko atalen eta zerbitzuen artean				

Ekintzak, kronograma, unitate arduradunak

	Egutegia	Unitate arduraduna
Lan baldintzak		
Segida ematea eta indartzea Lan Agintaritzaren eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailearen artean dagoen koordinazio eta lankidetzak estua laneko arriskuen prebentzioaren arloan, batez ere helburu, irizpide tekniko eta jarduketaren definizioan.	Iraunkorra	LOZ-LGSI-PEELZN
GSINerekin harremanak finkatzea amatasunerako lan arriskua ebaluatzeko jarraibideak aplikatzeko eta Gizarte Segurantzako Prebentzio Planaren jarduketaren jarraipena egiteko Nafarroan	2017	LAPA
Arriskuen kudeaketa		
Batera lan egitea Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailearekin eta Lan Agintaritzarekin enpresa-jardueren azpikontratazioari eta koordinazioari buruz	Iraunkorra	LOZ
Aztertzea "prevención10" edo "prevención25" atarrietako edukiak	2017	LAPA
Prebentzio sistema		
Mendien Zerbitzuarekin koordinatzea basogintzako azpiprograma garatzeko	2016	LAPA
Trafikoko agintariekin koordinatzea laneko bide segurtasuneko azpiprogramari begira	2017	PIU
Nafarroako lankidetzak organoak ezartzea Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailearekin, Gizarte Segurantzako Ikuskatzailearen Sistema Antolatzearen 21eko 23/2015 Legean aurreikusi bezala.	2017	PEELZN-LOZ
NOPLOIko atalen eta zerbitzuen artean koordinazioa egotea elkarren artean loturiko proiektuetarako		
Ikuskatzaileekin elkarlanean aritzea txosten osagarriak eginez ebaluazio eta plangintza psikosozialeko oinarritzko irizpide teknikoak betetzeari buruz	Iraunkorra	LAPA



	Egutegia	Unitate arduraduna
Elkarlaneko jarduketak hobetzea administrazio publikoen artean, hirugarrenen prebentzio arloko betebeharrak betetzen ote diren hobeki jarraitzeko	Iraunkorra	LAPA
Hezkuntza Departamentuarekin koordinatzea Prestakuntza eta Informazio Programarako	2016	LAPA
NBIekin koordinatzea berdintasuneko eta lana eta familia bateragarri egiteko politiketarako	2017	LAPA-NBI
<i>Sentsibilizazioa</i>		
Aztertzea zer formula dauden hala barnean nola kanpoan zabaltzeko jardunaldietan, ikastaroetan eta lantaldeetan parte hartuz geureganatzen ditugun ezagutzak	2017	PIU
Parte hartzea Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalak administrazio publikoetan zuzentzen dituen lantaldeetan, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalako lantaldeetan eta informazioa trukatzeko eta ezagutza sortzeko eztabaidaguneetan	2017	LAPA

Ebaluazioa

Adierazleak
Zenbat dokumentu edo txosten dauden segurtasun eta osasun arlorako adosturiko irizpide amankomunen gainean
Segurtasun eta osasun arloko zenbat programa bateratu ezarri diren beste administrazio batzuekin
Zenbat eremu ezarri diren koordinazio iraunkor eta aldizkakorako
Zenbat bilera egin diren urtean gainerako administrazioekin

2017-2020
Nafarroa



LAN OSASUNeko
EKINTZA PLANA

Nafarroako Osasun
Publikoaren eta Lan
Osasunaren Institutua



Instituto de Salud
Pública y Laboral
de Navarra